



ARGIA

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DONOSTIAKO PROTOKOLOA

ESKAERA ZEHAZAK ERAKUNDEEK BETETZEKO BEHINGOZ

» MAITE LARBURU NEIGHBOR TALDEKO MUSIKARIARI ELKARRIZKETA

» BAZTERRETAKO DANTZARIAK: EUSKAL TRADIZIOARI EKARPEN TRANSFEMINISTA

» ERRAUSKETARIK EZ NAFARROAKO HONDAKINEN PLANEAN



Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil
- IRITZIAK**
- 17 Mikel Zurbano
- 18 Bea Salaberri
- 19 Mikel Irizar
Miren Artetxe
- 20 Bixente Serrano Izko
- 21 Estitxu Eizagirre Kerejeta



Aldaketa handia ekarriko du Nafarroako Hondakinen Plan berriak. Gobernuak hondakinekiko kultura berria ezarri nahi du haren bidez. (ARGAZKIA: NAVARRAES)

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
PIERRE POITRAS
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: DONOSTIA 2016 FUNDAZIOA

SAKONEAN

- 12 | Maite Larburu, musikaria: "Basoan sartu naiz, eta ez dakit ondo nondik aterako naizen" / Danele Sarriugarte Mochales
- 22 | Donostiako Protokoloa: Hizkuntza eskubideen alde borrokatzeko tresna berria / Onintza Irureta Azkune
- 27 | Moisés Borges: "Brasilen urtegiek kaltetutakoen %70ek ez du indemnizaziorik jasotzen" / Aitor Kaltzakorta
- 30 | Iraultza dakar Nafarroako Hondakinen Planak / Xabier Letona
- 34 | Maria-Teresa Asplund, nazien manifestazioari oldartu zitzaion emakumearekin hizketan / Igor Goikolea
- 36 | Kooperazioa ikasgelara, adierazmen eta sorkuntzaz / Lander Arretxea Bereziartua
- 43 | Rebeca Lane, Guatemalako aktibista, poeta eta rapera / Iker Barandiaran
- 46 | Bazterretako dantzariak, euskal dantza tradizionalan leku gabeko identitateak taularatzen / Lander Arretxea Bereziartua

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Isabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.

PANORAMA

Eskubideak denontzat, espetxearen gaitzari aurre egiteko

Preso gaixo orok du eskubidea tratamendurik egokiena jasotzeko, eta gaixotasun sendaezinen kasuan, etxean artatua izateko. Baina euskal presoena da araua berresten duen salbuespena. Hamabi dira buruko gaitzak, minbiziak edo IHESak jotako euskal herritar presoak, etxetik ehunka kilometrotara direnak. Sakabanaketa, isolamendua eta Espainiako kartzela gehienek bizi-baldintzak ez dira egokiak gaixotasun larri horiek artatzeko. Angelita Burgoak, Ibon Iparragirre presoaren amak, manifestazioaren bezperan adierazi zuen gisan: "Espetxeak berak gaixotu zuen gure semea". Milaka lagunek injustizia hori salatu zuten urriaren 15ean Donostian.

Argazkia: Dani Blanco





“Gizon asko Donald Trump bezala mintzatzen dira pribatuan eta beste gizon batzuek baino ezin dute hori moztu”

Shaun R. Harper, maskulinitatea ikergai duen irakaslea.

“Bullying edo eskola-jazarpen kasu batzuetan, ikastetxean kamerak ezartzea beharrezkoa da”

Juan Calparsoro, EAEko fiskal nagusia.

“En Comú-koek noiz ulertuko dute Kataluniako Bidea dela Espainia birsortzeko biderik demokratiko eta azkarrena?”

Quim Arrufat (CUP), VilaWeb atarian.

“Eskolan txikitatik erakutsi ziguten ospatu egin behar genuela arpilatzeko, doktrinatzeko, torturatu eta hiltzeko Amerika inbaditu zuten eguna. Bi munduren arteko topagunea, zioten”

Karina Rashell, Ekuador.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Euskararen erabilerak gora egin du azken 25 urteetan

Iosu Alberdi Atxurra
@atxurraa

EAEko VI. inkesta soziolinguistikoko datuak argitaratu dituzte eta 25 urteotan euskararen ezagutza, erabilera eta babesak gora egin duela azpimarratu dute. Lehen aldiz Euskal Herriko hiru administrazioek batera egitea erabaki dute. Oraingoz EAEko datuak bakarrik kaleratu diren arren, Nafarroakoak ere laster izango dira eta Iparraldekoak 2017. urtearen hasieran.

Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordearen hitzetan, “hazkunde baten kronika” da euskararena: “Euskal gizarteak badu pozik eta harro egoteko motiborik”. Inkestaren arabera, 1991n baino 212.000 euskaldun gehiago daude. Gipuzkoan euskaldunak erdia

baino gehiago dira, Bizkaian laurdena baino zerbait gehiago eta Araban, bostetik batek du ezaguera –Araban portzentajea bikoiztu egin da–. Euskaldunen portzentajeak %1,9 egin du gora 2011. urtetik. Atzera begiratzuz, 25 urtean euskara dakiten gazteen ehunekoa hirukoiztu egin da.

Gazteen erdiak baino gehiagok etxetik kanpo ikasi dute euskara, orain arte gertatu ez bezala. Hori dela-eta, gehienek gazteleraz hobeto egiten dute, euskara bigarren hizkuntza baitute. Aldeak handiak dira lurraldearen arabera, Gipuzkoaren kasuan gazteen %36k egiten du euskaraz errazago, Araban %7k.

Bi gurasoak euskaldunak direnean ia beti (%96) euskara transmititzen zaie umeei. Euskalduna guraso bakarra denean hamarretik seitan gertatzen da hori.

“Espainiako gobernuen jarrera bere momentuan Uribek eta orain Turkiak duen berdina da”

KRISTIAN HERBOLZHEIMER, BAKE PROZESUETAN ADITUA

Aieteko Adierazpenetik bost urte igaro direnean, hala dio adituak: “Espainiako gobernuen jarrera, biolentziaren eta arazo politikoa dagoela onartzearen arteko loturari uko egiten dioten beste gobernu batzuen antzekoa da, Kolonbian Álvaro Uriberen gobernuarekin gertatu zen moduan, edo orain Turkian gertatzen ari den gisan. Espetxe politikak badu krudelkeriatik, eta horrek konfiantza falta islatzen du, aldaketetara egokitzeko erakundeek duten gaitasunarekiko”. **GARA (2016-10-16)**



MARRA GORRIAK ABERTZALEEN ARTEAN

une
historiko
Honetan...

BOTA DITZAGUN
GURE LISKARRAK
ZABORTEGIRA

ZE ZABORTEGIRA...
ERRAUSTEGIRA !!!

HAGO ISILIK,
ZERO ZABOR!

ERREFUSATZEN

ETZAZUELA DUGU !!!
KONPOST-PLANTAK
EGIN... ZUEK

ZIKINAK!

ZAKARRAK!

ZARETE
BOSGARREN
EDUKIONTZIA !!!

CK



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Eta Armintzako artistak gure amonak izan baziren?

Iraitz Agirre Aranguren
@garoharria

Lekeitioko Armintza koban 50 grabatu baino gehiagoz osatutako marrazki multzo paleolitiko paregabea aurkitu dutela jakin berri dugu. Bobeda itxurako horma fosildu batean trazatuta agertu dira grabatuok, kareharri ezegonkorrean silex harriarekin marraztuta. Duela 14.000 urte bertan izandako artistek bisonteak, zaldia, ahuntzak, lehoiak edo zirkulu erdi zein lerroak, irudi abstraktu zein zehatzak egin zituzten. Euskal Herrian ditugun beste hamaika margolan eta grabatu gordetzen dituzten kobazuloen zerrendara gehitu behar dugu Armintzaren izena: Atxurra, Ekain, Santi-mamiñe, Altxerri, Alkerdi...

Antzerako aurkikuntza baten berri izaten dudan bakoitzean, ipuin hartako galdera da nigan berriz jaiotzen dena ordea. Nola ahal zuten, gure antzinako aitonek, hain era dotorean margotu? Nola ahal izan zituzten, basapiztien aurka esku hutsez borrokatzen ziren astapetro haiek, hain irudi airosoak sortu? Nola ahal izan zituzten haitzetatik ihesi airean doazen marra hegalariaiok marraztu? Nola ahal izan zuten...? Ala amonak ziren?

Eduardo Ganeanoren Ispiluak liburuan jasotzen den *Edertasuna Sortu* ipuina irakurri arte –gaztelaniaz *¿Cómo pudieron ellos...?* galderak gidatzen du narrazioa, eta *¿o fueron ellas?* galderarekin bukatzen du–, nik ere gizon indartsuak imajinatzen nituen langintza horietan. Historia museoe-

tako argizarizko panpinak eta historiaurrea kontatzeko erabiltzen diren irudietan gizonak bakarrik agertzeak izango ote du loturarik? Edo giza espezieen eboluzioa irudikatzeko erabilitako gizon gorputz hurrenkera lineal zentzugabe batek? Bakarka zein talde txikian aritzen ziren ehiztari eta harrapariaren mitoak? Genero ikuspegirik batere ez duten historiaurreari buruzko arratsaldetako dokumentalek? Edo *Bazen behin bizitza* bezalako marrazki bizidunek? Bai, maiuskulaz idatzitako Historian subjektu bakar bezala hartua izan den ar eta gizonaren lekutik kontatu zaigu iraganaz dakigun eta uste dugun guztia.

Dean Snow arkeologoak Frantzia eta Espainiako estatuen mugaren bi aldeetako kobetan aurkitutako ehunka esku marka aztertuz egindako ikerketaren arabera, ordea, duela hamabi mila eta berrogei mila urte arteko aztarnen hiru laurdenak nagusiki emakumeek egindakoak dira. Bada teoria hau ezbaian jarri edo osatzen duen azterketarik ere, besteak beste, margolanak haurrek edo txamanek egindakoak izan daitezkeela diotenak.

Teoriarik txalotuenak edo enpirikoki baieztagarrienak edozein direlarik ere, ezin da ukatu, begirada fintzera garamatzaten galdera hauek, bestelako moduak, munduak eta protagonistak badirela eta izan direla erakusten laguntzen digutela. Non eta nondik sortzen den artea? Ba besteak beste, seguruenera, galdera bat eta ugariren erantzunetan arakatu gura izatetik.

EKONOMIAREN TALAIAN

Langabezia saria, kartzelatik irten direnen eskubidea



Juan Mari Arregi

Legeak betetzeko eginak dira, herritarrek betetzeko, baina batik bat legea egin dutenek betetzeko, Estatuak eta bere gobernuek alegia. Espainiako Estatuak ez du betetzen ordea, hor ditugu Euskal Estatutua-ren eta Nafarroako Hitzarmenaren kasuak; eta kartzelatik irten direnentzako langabezia saria arautzen duen legea ere ez du betetzen; preso arrunten kasuan bai, baina ez politikoenean. Jokabide horrek pixkanaka kalera irteten ari diren euskal preso politikoei eragiten die.

Egungo legediaren arabera, kartzelatik irten direnek eskubidea dute hilean 426 euro jasotzeko urte eta erdiz gehienez ere, Gizarte Segurantzaren alta hartzen ez badute. Espainiako Gobernuak, baina, ez die ordaintzen, Konstituzio Auzitegiak hala egiteko agindu badio ere. Estrasburgok Parot doktrinarekin egindakoa ikusita, kalera irtendako presoan aldeko epaia ez betetzeko PP eta UPyD berehalakoan ados jarri ziren eta Segurantza Sozialeko Lege Orokorra moldatu zuten. Legearen defendatzaileek horrela ulertzen dituzte zenbait arau, eta ez dute lotsarik euren interes baztertzaileren arabera erabiltzeko, kasu honetan, kalera irtendako euskal presoena kontra.

Bere legeak urratzeaz gain, Espainiako Estatuak mendeku estrategia darabil, euren kondena bete eta eskubide guztien jabe diren gizon eta emakumeen kontra. Mina luzatu eta preso politiko ohiak prekarietatean hondoratu nahi dituzte. Epailak ez lirateke diskriminazio eta ilegaltasun horren konplize izan behar, eta ofizioz pertsegitu beharko lukete Estatuaren jarrera urratzailea. Langabezia saria, Euskal Herriko zergadunek ere ordaindua, euskal preso politiko ohien eskubidea ere bada.



INDEPENDENTISTAK SAREA

Hispanitatearen Egunari boikota

Latinoamerikan, urriaren 12an Colonen Eguna ospatzearen aurkako mugimendua bizi dabil, Amerika deskubritu baino, Amerika inbaditu zutela ulertuta. Indigenen Eguna aldarrikatu du hainbatek. Espainiako Estatuan, bada Hispanitatearen Eguna ospatzeari uko egiten dionik, eta Badalonako Udalean (Katalunia) gertaturikoa da horren isla: urriaren 12an lan egitea erabaki arren, udal zerbitzuak ixtera behartu zituen epaitegiak, baina epaia desobeditzea erabaki zuen Udalak. Euskal Herrian ere izan da mugimendurik. Independentistak Sareak, adibidez, Euskal Estatua eraikitzearen beharra aldarrikatzeko aprobetxatu zuen eguna eta Sestaon egin zuten, "langile klasea delako etorkizuneko Euskal Herri juxtu eta solidarioaren bermea".

Mozal Legeak Donostian zigortuak kalera atera dira

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

20 herritar baino gehiago zigortu ditu Donostian Ertzaintzak eta Udaltzaingoak Mozal Legea aplikatuta. Guztira 7.000 eurotik gora eskatzen dizkiete. Urriaren 15ean agerraldia egin zuten udaletxe aurrean, Librek deituta.

Zigortutako ekintzak

Santomasetan pankartak jartzea (10 kide), jakinarazi gabe elkarretaratzeak deitzea (Libreko 3 kide, Gipuzkoa Zutikeko 2). Ondarruko Herri Harresian (2), Bilboko unibertsitateko itxialdian (2), Maiatzak 1ean Kaiako parodian parte hartzea (5).

Konpromisoak

Mozal Legea ez aplikatzeko konpromisoa hartu zuen Eusko Legebiltzarrak, eta berdin Gipuzkoako Foru Aldundiak. Donostiako Udalean mozioa aurkeztuko du Librek eta denei konpromiso honekin koherentzian jokatzeko eskatuko die.

Hurrengo urratsak

Mozal Legearen inguruko gunea sortzeko asmoa du Libreko Donostian. Kasu batzuetan epaiketara jotzea aurreikusi dute, eskubide zibil eta politikoak juridikoki defendatzeko. Abokatuen datu basea ere osatuko dute, jurisprudentzia lantzeko.

EUSKARA



%25

289 pediatra, familia eta larrialdi mediku daude UEMako herrietan, eta horietatik 73 ez dira gai euskaraz aritzeko. Alegia, lautik bat.

%35

ez dira gai euskaraz aritzeko, pediatren kasuan. Biztanleen %70a baino gehiago euskalduna da UEMako herrietan; guztira 230.000 biztanle inguruko lurgunea da.



ERREFERENDUMA ESKOZIAN

Bigarren independentzia erreferenduma egiteko bidean da Eskozia. Europar Batasunean geratzearan alde egin zuten eskoziar gehienek 'Brexit'aren galdeketa, eta horien interesak defendatu behar dituela adierazi du Eskoziako lehen ministroak.



EUSKADI SARIAK

Haur eta gazte literaturako saria eta saiakera saria irabazi dute, hurrenez hurren, Uxue Alberdik (*Besarkada*) eta Mitxelko Urangak (*Mina, boterea eta egia*), euskarazko alorrean.



LIZEO BERRIA XEDE

Ikasle gehiago jaso ahal izateko kolegio berria eraiki nahi du Seaskak Bernat Etxepare Lizeoa dagoen lekuan. Horretarako "Hazten gaitu, hazten dugu" kanpaina abiatu du. Ekipamendu eta materialak lortu nahi dituzte, sagarrondoak salduz, eta 300.000 euro beharko direla aurreikusi dute.

Merkatu kanibalean txiroen gorputzak salgai aberatsen ongizaterako



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Alokairuzko haurdunaldiak, organoen trafikoa, bio-bankuak... Esklabotza berri bat ari da hedatzen, gorputzen proletariotza, zeinetan gizadiaren parte txiroena beren soinak saltzera behartuta dagoen jende aberatsagoak osasuntsu bizi daitezen, guztia puntako medikuntzaren laguntzaz eta Hipokratesen zin famatua –“Ezer baino lehen, kalterik ez eragin”– zaborretara jaurti duten doktoreen esku hartzez.

Gammy txikiak zorte txarra izan duela esango dute. Thailandian 2013an Pattaramon Janbuaren sabel alokatuan sortua, amari laga zioten bere *erosle* David Farnell eta Wendy Li senar-emazte australiarrek, beraiekin eramanda Pipah, Gammyren arreba bikia. Down sindromea dauka Gammyk eta guraso genetikoek esan omen zuten haiek ez zutela hainbeste diru ordaindu haur anormal batekin etxeratzeko. 2014an zabaldu zen albistea, Pattaramon ama alokatu gazteak prentsara jo zuenean laguntza eske, etxean dirurik ez zeukatelako Gammy mantentzeko. Pipah bikia Australian bizi du, guraso legalekin.

Istorio hau kontatu du Jean-Daniel Rainhorn mediku frantsesak; beste adituekin batera plazaratua du *“Merkatu kanibal berriak: Globalizazioa eta giza gorputzaren merkantzia bihurtzea”* ikerlana, 2014an Suitzako Genevan giza gorputzaren merkantilizazioaz egindako sinposiumean aurkeztutako materialak bilduta. Liburuan luze eta azal analizatzen dituzte emakumeen sabelen alokatzea, medikuak beste herrialdeei lapurtzea, soin atalen salmenta, giza ehunen bankuen negozioa...

Merkatu berriok, dio Rainhorn doktoreak, indartu dira badaudelako giza gorputzen atalen bai eskaria eta bai eskaintza. Horretan eragina izan dute medikuntzan teknologia berriek egindako aurrerapenak, neoliberalismoak, mundializazioak eta internetek. Gurpil handi horretan funtsezkoa da medikuen esku

hartzea, Rainhornek salatzen duenez, “Hipokratesen zina ahaztu duten medikuen” saldukeria.

Le Monde egunkariari emandako elkarrizketan laburbildu duenez, nazioarteko erakundeek ere ez dute zehaztasun osoz ezagutzen merkatu kanibal berri hau, zeren eta txiroen gorputzak aberatsen osasunaren edo ongizatearen zerbitzuan jartzen dituen negozio erraldoia aldi berean ari baita legalitate barruan eta kanpoan, eta zati handi batean kriminalitatearen eremuan.

Emakumeen sabelen alokatzea nola ugaritu den ohartzeko datua: 2014an soilik Indian 5.000 haur sortu ziren horrela, herrialde hartan 2.000 milioi euroko negozio bolumena mugi araziz, bertako patronalak emandako zifratan. Alokairuzko haurgintza legezkoa den Kalifornian 2008an 1.400 ume kontabilizatu ziren, eta bost urtetan kopurua bikoiztu egin zen.

Organoen trafikoa neurriaz, MOE Munduko Osasun Erakundeak dio 2005ean 66.000 giltzurrun txertatu zirela, %10 edo %20 legez kanpo, beraz 6.000 baino gehiago. Giltzurrunen trafikoa, dokumentatuta dagoenez, egiten da Indian, Pakistanen, Txinan eta Libanon errefuxiatu siriarren artean. Filipinetako Manilan famatua da “Giltzurrun Bakarrek Uhartea” deitu txabolategia, hain ugariak dira bertan bakarrarekin bizi diren gizonezkoak.

Bio-bankuei dagokionez, obuluen merkatua azaltzean Rainhornek beti



aipatzen du Bartzelona dela Europako hiriburu nagusia, gauzarik arruntena bezala egiten direla obuluak biltzeko kanpainak –800 euro eskainiz– unibertsitateko neska gazteen tartean eta gero horiekin egiten dituztela *in vitro* ernalketak mundu guztitik etorritako emakumeentzako.

OMEk babestutako ikerketak ez du ahazten medikuen lapurreta. Herrialde batzuek familien eta estatuen diru asko sendagileen formakuntzan gastatu ostean, aberatsek eramaten dizkiete, hain beharrezkoak direnean beren sorrerrietan bertan. Adibide bat: Britainia Handian, osasun zerbitzu publikoak aitorturik, 2015ean ari ziren 100 medikutatik 26 OCDEz kanpoko herrialdeetatik etorriak ziren.

Giltzurruna zenbatean? Eta haurra?

Giza gorputza puskaka saldu, eta erosi daiteke gaur. Sarritan, legearen barruan. Indian edo Kalifornian uteroa alokatzea legezkoa da, legezko bihurtuz guraso biologikoak eta alokairuzko ama katalogoz hautatzea, azkenean haurra 120.000 dolarretan erosteko.

Baina zer da legala eta noraino? Organoen txertaketan ikusi da, Rainhornen hitzetan, hartzaileari legez txertatuko zaion organoa sarritan modu ilegalean izan zaiola erauzia beste bati. Legez gain, gainera, justizia dago: horrelako salmenta dagoenean tartean, beti ahulena dira saltzaile. Indian ikerketek eraikutsi dute organoren bat saldu dutenen



'Women Weekly' astekariaren argazkian, Gammy ttikia ama Pattaramon Chambuaren besoetan. David Farnell eta Wendy Li senar-emazte australiarren enkarguz bikiak erditu zituenean, erosleek Pipah neskatoa berekin eraman zuten baina Gammy bertan laga, Down sindromez jaio zelako. Australiarrek argudiatu dute haurdunaldian jakin zutela bikietako bat trisomikoa zettorrela, ama alokatuari eskatu ziotela abortatu zezan baina honek bere sinesmen budistengatik ez zuela nahi izan. Tailandiako gobernuak, eskandaluarekin, moztu egin ditu gisa honetako operazioak.

%83 emakumeak direla, txiroenen artean txiroenak.

"Esklabotza berri bat daukagu begien aurrean, gorputzaren proletariotza, zeinetan gizadiaren parte batek bere soina saldu behar baitu beste batzuk bizi daitezen". Eta edozein salgai bezala, esku lana barne, eskariak eta eskaintzak arautzen dute prezioa. *Der Spiegel*ek argitaratu berria du errefuxiatu siriarrentzako Libanoko kanpalekuetan giltzurrunaren prezioa jaitsi dela 3.000 eurotik 700etara. Prostituziora behartuen tarifak merkatu diren moduan, *saltsaileak* hain daude behar handian...

Genevan bildutako adituek aipatu zifrok ez dira aliritzira boteak, horiek eta asko gehiago eguneratuta aurki daitezke merkatu beltz globalaren datu base izan nahi duen *Havocscope* webgunean. Ikusi giltzurrunen prezioak, adibidez.

Batez beste munduan giltzurrun baten erosleak 150.000 dolar pagatu du, eta saltsaileak 5.000 kobratu. Txinan 27.500 eurotan eros dezakezu, Egipton 20.000tan, Thailandian 10.000tan... Birtartekariaren komisioen datuak ere badira, ez da misterio handirik, erosteko interesa dutenek ezagutzen dituzte.

Baina doako donazioz eskaintzen diren ehun bankuez ere mesfidatzen dira Rainhorn eta beste adituak. "Kontua da zuk doan ematen duzuna gero enpresek saldu egiten dutela. Giza ehunen banku europar bat dago, adibidez, armada guztien hornitzailea dena eta dagoneko ordainduzkua dena. Baina ez du merezi eskandalizatzea, gauzak okerragotu egingo direlako". Eta aipatzen ditu geneen bio-bankuak, genoma sekuentziak saltzen dituztenak, etorkizuneko haurren ezaugarri fisikoak aldatzea bai-

menduko dutenak, ilearen edo begien koloreak aukeratzea bezala.

Hurbiltzen ari ote gara Yazuo Ishigurok 2005ean "*Ez iezadazu sekula utzi alde egiten*" [*Never Let Me Go*] nobelaren marraztu zuen mundu hartara, non haur klonatuak zaintzen dituzten barnetegi batean beren organoak gero behar orduan haur *normalei* txertatzeko? "*Merkatu kanibal berriak*" ikerlanarekin lortu nahiko lukete herritarren artean halako *haserretu* taldeak mobilizatzea, nazioarteko erakundeek gaia seriotan hartu eta Giza Eskubideen Itunean zehazki aipatua izan dadin.

Jean-Daniel Rainhorn: "Joko arauak aldatzen ari dira, osasungintzako teknologiek errotik aldatu dute gaixoaren eta sendagilearen arteko harremana bera ere. Gizartearen deshumanizatzea iritsi da medikuntzaraino". ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Maite Larburu, musikaria

«Neighbor taldearekin, basoan sartu naiz, jakin gabe, eta ez dakit ondo nondik aterako naizen»

Kontzertu batean berez atera zitzaion irrintzi bati esker ezagutu nuen Maite Larburu, Asier Altunaren *Zela Trovke* (2013) film laburrean. Neighborren zuzeneko dibertigarriak eta soinu liluragarria etorri ziren gero. Bigarren diskoa kaleratu berri duten honetan, gehiago ezagutu nahi izan dut Larburu bera eta antzinako musika, musikari freelancearen baldintzak; hangoa eta hemengoa, atzerria eta itzulera.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Antzinako musika ikastera joan zinen Amsterdamera.

Amsterdamen bizi izan naiz 14 urtez, etenik gabe; azken urte eta erdian, berriz, Hernanin bizi izan naiz, lana daukadan hara bidaiatuz, proiektu egiten baitut lan, eta akaso proiektu batek iraun ditzake bi aste edo hilabete.

Zergatik itzuli zara?

Komunitate moduko batean bizi izan nintzen urte askoan. Herbehereak guztian daude halako *wohngrup*ak (bizi taldeak), eta hala esaten zaie komuna ez deitzeagatik, komuna esanez gero jendeak sexu librea eta ez dakit zer irudikatzen baitu. 14 urteren ostean alde egin behar izan genuen handik eta etxea aurkitzea oso zaila da Amsterdamen. Gainera, luxuzko etxe batean bizi izan bazara (alokairu sozial merkea, sekulako espazioa, lorategia, sotoa...), bada ia ezinezkoa da horrelako beste zerbait aurkitzea zure bizi estiloa aldatu gabe. Amonak pisu bat utzi zuen hemen eta, orduan, pentsatu nuen hona etorriko nintzela zer egin pentsatu bitartean... Eta oraindik horretan nabil.

Nola funtzionatzen dute *wohngrup*-ek?

Herbehereetan, okupatzea legala izan da duela lauzpabost urte arte. Jendeak gobernuaren etxe asko okupatu zituen, hutsik zeuden-eta (gure etxea, adibidez, polizia-geltokia izana zen). Orain, okupatuz gero, kanpora bidaltzen zaituzte, baina 80ko hamarkadan ez zen hala. Gure etxearen kasuan, emakume-talde batek sustatu zuen, lehenbiziko *wohngrup* feministetako batizan zen, eta azkenean akordio bat lortu zuten Udalarekin: guk ordainduko dizuegu alokairua, gu etxe honetan bizi ahal izateko, baina gu gara etxe honetako taldea, eta guk aukeratu dugu nor etorri eta nor joan. Etxe horrek etxebizitza sozializatzen jarraitu behar du, alegia, bizimodua konpartitu behar da, familia moduko bat sortu.

Nola iritsi zinen hara?

Beste *wohngrup* horretan bi lagun neuzkan eta esan zidaten beheko andreak alde egin behar zuela eta haren ordeztortzekoa zena ez zela hiru hilabete geroagora arte sartuko. Azkenean hark ez etortzea erabaki zuen, denek onartu ninduten, eta han geratu nintzen.

Ni iritsi nintzenean *wohngrup*aren ideia pixka bat galduta zegoen. Lehenengo bi pisuetan jende helduagoa bizi zen, okupazioaren garaikoa, eta goiko pisan, berriz, hiru musikari. Taldea pixka bat apurtuta zegoen. Nik ez neukan halako idealik ezta ezer, musika ikastera joana nintzen; han sartu eta flipatuta geratu nintzen. Ni sartu nintzen garaian jende berri asko etorri zen eta orduantxe hasi ginen pixka bat ikasten, goikoa eta behekoa nahasten...

Aise erabaki al zenuen atzerrira joatea?

Banekien atzerrira joan nahi nuela musika ikastera. Donostiako kontserbatorioko esperientzia ez zen oso ona izan, eta banekien Alemanian-eta bazegoela musika klasikoaren tradizio oso handi bat.

Zer-nolako esperientzia izan zenuen bada Donostiako kontserbatorioan?

Nire sentipena zen inbutu batetik sartzen zizutela musika eta zugandik ateratzen zen horrek ez zeukala tokirik. Askori gertatu zaio hori kontserbatorioan, ez bakarrik hemen; halakoxea



Maite Larburu

1979, Hernani

Biolina ikasi zuen Donostiako kontserbatorioan, eta Amsterdamen jarraitu ikasketekin: bachelor gradua eta masterra egin zituen han. Hantxe hasi zen, baita ere, antzinako musika ezagutzen, eta horretan dabil lanean ikasketak amaituz geroztik, Holand Baroque taldean, besteak beste. Orain hiruzpalau urte Neighbor taldea sortu zuen Josh Cheathamekin batera, eta bi disko argitaratu dituzte: *Ura patrikan* (2013) eta *Hau* (2016), biak ere Gaztelupeko Hotsak etxean. Besteak beste, herri musika eta jazza nahasten dituzte.

da akademizismoa. Askok utzi egiten zuten, baina ni txintxoa nintzen, bada jarraitu egin nuen.

Amsterdamen, berriz...

Hemen, musikari begiratzeko bizpahiru modu zeuden, eta han, berriz, 57,5 bide musika egiteko, ikusteko eta ulertzeko; niretzat deskubrimendu handia izan zen. Irakasle oso ona izan nuen, gainera: jakin zuen sumatzen zer atera zitekeen-nigandik. Hura saiatu zen ni antzinako musikarantz bideratzen, nahiz eta, hasieran, nik nahi ez izan.

Zergatik?

Pentsatzen nuelako nire inguruan ikusiak nituen beste musikariak bezalako-izango nintzela. Bukatuko nituen ikasketak, gero egingo nituen oposaketak kontserbatorio batean edo orkestra sinfoniko batean sartzeko, eta hori izango zen nire bizitza: orkestra berean, egunero, 10etatik ez dakit zer ordutara, betiko, behin lanpostua lortuta. Lanpostu horiek ondo ordainduta daude, eta ondoren zerrendan datozen gauza guztiak egin ditzakezu: etxea erosi, ezkondu... Neronek ez nekien akaso ez nuela horretarako balio, baina irakasleak igarri zuen.

Eta, beraz, ez zenuen bide hori hartu.

Ez, azkenean ez. Azkenean antzinako musikak txunditu ninduen eta ikasketak bukatu nituenean ez zitzaidan burutik pasa ere egin orkestretan sartzeko entzunaldiak egitea, deika hasi baitzitzaizkidan antzinako musikako taldeetatik, handik eta hemendik.

Hasierako erreparo hori, zer dela-eta?

Musika klasiko normalaren barruan antzinako musikariak dira txarrenak, edo ez dute hain ondo jotzen, hippyztat hartzen dituzte. Antzinako musikaren iraultza 70eko hamarkadan hasi zen eta horretan ibili ziren musikarietako asko ez ziren guztiz egokitzen musika klasikoaren mundu arruntera. Apur bat eroa izan behar da museo batean ikusi duzun XVIII. mendeko oboe bati buruz galdezkasteko, giltzak beharrean zuloak dauzkala-eta, norbaiti eskatzeko kopia bat egin dezan, eta abar. Estereotipoak dira, jakina: antzinako musikari denak ez dira hippyak, jende asko dago ezkon-duta... Baina, kanpotik, hori zen itxura. Batez ere niretzat, hemendik etorrita.

Zer alde dago musika klasikoaren eta antzinako musikaren artean?

Iraultza frantsesak haustura handi bat ekarri zuen musikaren historian. Artean, orokorrean, klasikoetara itzuli ziren 1789aren ondoren, eta musikan ere hori egin nahi zuten, baina ez zegoen Greziako eta Erromako musikarenaz-tarna handirik. Orduan, konpositoreek erabaki zuten beraiek sortuko zutela klasizismoa. Orduantxe sortu ziren musika-aretoak eta orduan bihurtu zen konpositorea oso figura handi bat, enperadoreen pareko soin eta guzti. Garai horretakoak dira orkestra, kontserbatorioa, argitaletxeak...

Horren aurretik oso bestelako gauza zen musikaria izatea. Musikari ertain guztiek zekiten unean inprobisatzen. Tresna bat baino gehiago jotzen zuten denek, eta musika idazten. Gero, bat-batean, hori hautsi zen eta gero eta gehiago espezializatzen hasi ginen: orain, biolinista bazara, hori bakarrik zara, eta partitura irakurtzen ikasten duzu.

“Hemen, musikari begiratzeko bizpahiru modu zeuden, eta Herbehereetan, berriz, 57,5”

“Musika klasiko normalaren barruan antzinako musikariak hippyztat hartzen dituzte”

Zure bidera itzulita, freelance moduan diharduzu, ezta?

Antzinako musikaren zirkuitua ez da klasikoa bezalakoa. Prekarioagoa da, esan dezagun ez daukazula lanposturik. Norbaitek ezagutzen zaitu, deitzen dizute jotzeko eta, zure lana ondo egiten baduzu, berriz deituko dizute. Orain, talde batzuetako kide ere banaiz, eta talde batzuetan gehiago jotzen dut beste batzuetan baino.

Zer-nolako baldintzak daukazu?

Herbehereetan naiz autonomo, eta ez dakit babestuta ote gauden, baina autonomoa izateagatik ez dut ordaintzen. Zuk egiten dituzu zure fakturak, ordaintzen dituzu zure zergak, baina autonomoa izatea bera doakoa da. Herbehereak asko aldatu da, oso soziala izan da eta orain gero eta gutxiago, baina, teorian, han pozik daude norberak bere enpresa sortzen baldin badu, hori ona da herrialdearentzat, bertakoa delako. Frantzia, berriz, aldizkakotasuna deituko zerbait daukate, eta, musikari librea baldin bazara eta kontzertu kopuru minimo bat egiten baduzu, soldatatxo bat ematen dizute hilero. Espainian, ordea... Garai batean asko jotzen nuen Zaragozako talde batekin, Al aire español, eta musikari asko penintsulakoak ziren, baina, noski, irakasleak ziren gehienak. Zaila zitzaien bi lanak uztartzea, baimenak-eta eskatu behar izaten zituzten, baina bestela horretatik bakarrik bizitzea ez da posible.

Zure musika-ibilbide profesionalaz aritu gara orain arte, baina bazabiltza bestelako musika-proiektu batean ere. Nola sortu zen Neighbor?

Kantua beti gustatu izan zait. Gainera, uste dut jotzea baino lehenago zegoela kantatzea. Saiatu nintzen horrekin zerbait egiten, Donostiako Jazzle akademian ibili nintzen, Amsterdamen ere sartu-irten bat egin nuen jazz-sailean... Baina ez nuen ahotsarekin pasa nahi biolinarekin bizitako akademizismoa, ez nuen modu batera kantatzen ikasi nahi. Gero, ekialdeko musikari batzuk ezagutu nituen, tartean, Eslovakiako Miloš Valent. Beren modura egiten dute musika, tresna ateratzen dute tabernan eta jotzen eta kantuan hasten dira; hala-xe bizi dute. Inbidia handia eman zidan horrek. Hala ere, ez zen halako gauza kontziente bat izan. Josh [Cheatham] ezagutu nuen eta brometan esaten genuen musika-talde bat egingo genuela eta joko genuela nahi moduan, ez esaten diguten moduan.

Orduan, lanaren eta Neighborren arteko aldea litzateke bata markatua dagoela eta bestea askea dela?

Ideala hori litzateke. Gero errealtatea da bestearen aztarna daukazula jada, eta belarria modu batera eginda. Nola-bait ere, nahastuta dago dena.

2013an atera zenuten lehen diskoa, eta harrera beroa jaso. Zer moduzko esperientzia izan zen lehenengoz jendaurrean kantatzea zeure abestiak?

Ikusi nuenean jendeak kantak zekizkiela, flipatu egin nuen. Gogoratzen naiz behin kontzertu batean ikusi nuela neska bat kanta zehatz batekin negarrez, sufritzen bezala, eta neroni ere hunkitu egin nintzen, eta, ufa, distantzia pixka bat hartu behar nuela sentitu nuen. Sinetsi nahi dut, behin kanta aterata, jada ez dela nire, entzuten duenarena baizik, eta entzuten duenak kantarekin daukan harremana berea dela, ez nirea.

Kuriosoa da, zeren niri, zuen kontzertuetara joanda, iruditzen zait jendea asko dibertitzen dela, beti dago halako giro alai bat...

Oholtza gainean biolina jotzen ari naitzenean, masan egon ohi naiz; beste batek dauka gidaritza eta nik jarraitu egiten diot. Neighborrekin, berriz... Igual sekulako arriskua da: eman pertsona bati mikrofonoa, eta ez da isilduko. Nire buruaz barre egiteko aritzen naiz hala. Klasikoan serioa da dena, konpositorearen musikak ez dakit nora eramaten zaitu eta halako eta bestelako sinboloak dauzka. Eta zer esan behar dut nik neure kantez? Ez dago-eta ezer esateko. Orduan, zer? Bada, barre egin. Oso serio hartu ohi ditut gauzak eta horrekin hauetsi nahi nuen.

Irailean kaleratu eta aurkeztu duzue bigarren diskoa, *Hau*. Nola etorri da?

Asko pentsatu gabe. Jotzen genuen eta jendeak galdetzen zigun: hurrengoa noiz? Nik pentsatu nuen: biltzen baditut beste hainbeste kanta, bada egingo dugu, eta ez baditut biltzen, bada ez. *Hau* kanta sortu zen lehenengo. Jolas baten modukoa zen, normalean bis bezala jotzen genuen. Hau hitza errepikatzen nuen, harmonia ezberdinekin, entzuleari galdetzeko ea ezberdintasunak nabaritzen zituen, edo esateko oraina hau dela, eta hau ere bai, eta hau... Gero, segitu dut kantak egiten. Hasi nintzen beste tresna batzuk jotzen, zuzenekoetan aukera gehiago edukitzeko, eta hortik sortu dira kantak, eta ahotsetik ere, noski. Baso batean sartu naiz, jakin gabe sartuko nintzela, eta hortxe nabil, ez dakidala oso ondo nondik atera...



MIKEL P. ANSA



Bigarren diskoa erabakigarritzat jo ohi da. Ez duzu presiorik sentitu?

Neure burua da niretzat presiorik handiena. Niri gustatuko litzaizkidakeen kantak egiten ditut. Besteek beren iritzia ematen dute, jakina, baina saiatzen naiz belarri batetik sar dadin, eta bestetik atera. Zerbaitek oihartzuna egiten badu barruan, saiatzen naiz kontuan hartzen.

Eta zure buruari egindako presioak eskatu al dizu lehenengo diskotik bigarrenera zerbait aldatzeko, zerbaitetan sakontzeko?

Ikasten ari naiz eta iruditzen zait oso koadrikulatua naizela. Halakoak dira *Ura patrikaneko* kanta asko: neurri bat daukate, simetria bat, hainbeste bertso... Horrekin apurtu nahi nuen hurrengo kantetan, hain zorrotza ez izan, ikusi ea gauzak beste modu batera musikatu ote zitezkeen, beste batzuek

Zergatik?

Lanean eta lanetik kanpo musikan aritzen dela-eta, zergatik egiten ote duen galdetu diot Larbururi. Erantzuna ez da berehalakoan etorri, baina iritsi da noizbait ere: "Ez dakit zer ero klasek egingo lukeen. Pentsatzen jarrita... musikarekiko maitasun handi-handi bat izan behar du".

lortzen baitute, eta neuk ere egin nahi nuen. Akaso, horren adibide nabarmena da *Invisible threads* abestia. Nahita erabaki nuen kanta asimetriko bat sortzea, kanta herren bat.

Disko batetik bestera zenbait gauza aldatu ditut, nire gaitasuna neurtzeko batez ere. ■



Mozkinak versus eskubideak



Mikel Zurbano

EHU-KO IRAKASLEA

Bangladesheko Dhaka hiriburuko lantegi batek orain dela hilabete eskas izandako suteak duela hiru urte Rana Plazako merkataritza guneak jasandakoa ekarri digu gogora. Hildako ehunka langileek Europako eta Ipar Amerikako marka ezagunentzat oihalgintzan ziharduten orduan. Industriegintzan lanean ari diren haurren usiakuntzari buruzko albisteak noiznahi kaleratzen dira eta, oro har, enpresa erraldoietako produkzio kate uher eta ugaritan jasandako lan gehiegikerien inguruko argitalpenak eta txostenak maiztasun handiarekin ikusten ditugu.

Enpresa erraldoien gehiegikeriak eta horien fakturazio bolumenaren urteroko zifrak –sarritan herrialde batzuetako BPG bera gainditzen dutenak– elkar lotuta doaz. Aldiz, estatuen ekonomia ahalmenak ahultzen ari dira enpresa handiekin alderatuta, baita beren kontrol ahalmen orokorra ere. Botere ekonomiko globalaren banaketan estatuek gero eta indar txikiago dute enpresa transnazional handien mesederako. Enpresa horiek jatorrizko herrialdea atzean uztean, zaila izaten da horien gaineko kontrol publiko eraginkorra egitea, eta are nekeagoa da giza eskubideen urraketarik egiten duten epaitzea.

Bestalde, nazioarteko zuzenbidearentzat enpresak ez dira eskubide eta obligazioak dituzten aktoreak eta giza eskubideak babesteko ezartzen diren nazioarteko itunak horiek sinatu dituzten estatuentzat soilik dira lotesleak, beraz, ez dituzte enpresak horretara behartzen. Hartara, jatorrizko lurraldez kanpo diharduten enpresak sarritan eremu “ilunean” daude giza eskubideen errespetuari dagokionean. Izan ere, beren jarduera ez du jatorrizko estatuak kontrolatzen, beren jarduera hartzen duen herrialdearen legalitateak baizik,

Nazioarteko zuzenbidearentzat enpresak ez dira eskubide eta obligazioak dituzten aktoreak, eta giza eskubideak babesteko ezartzen diren nazioarteko itunak horiek sinatu dituzten estatuentzat soilik dira lotesleak, beraz, ez dituzte enpresak horretara behartzen. Hartara, jatorrizko lurraldez kanpo diharduten enpresak sarritan eremu “ilunean” daude giza eskubideen errespetuari dagokionean

zeinak atzerriko inbertsio handiak erakartzeko malgutasun handia duen bere arau zein lege gintzan hain zuzen.

Espainiako Estatuko IBEX35 osatzen duten enpresek ere lege errealtate hori zuzenetik ezagutzen eta baliatzen dute. Enpresen Gizarte Erantzukizunaren Behatokiak argitaratu berri duen 12. Txostenean IBEX35eko enpresek giza eskubideen muturreko urraketarako arriskua duten hoguei herrialdeetan dihardutela ondorioztatu da. Eta horietako 32 enpresak bederen herrialde horietako batean dihardutela gaineratzen du txostenak. Behatokiak dio 35 enpresetatik 23k enpresaren barruan giza eskubideen errespetuzko politiken berri ematen dutela, baina politika horien egiaztatze maila jakin nahi dugunean egoera ez da horren positiboa. Hamalau enpresak bakarrik aipatzen dituzte giza eskubideen errespetua bermatzeko mekanismo eta prozedura zehatzak. Areago, lau enpresak bakarrik onartzen dute giza eskubideen gaineko arriskuak identifikatu dituztela, eta giza eskubideetan bere jarduerak dituen eragin negatiboak borrokatzeko hartutako neurrien berri ematen dute.

Gobernuz kanpoko erakundeen (GKE) eta mugimendu sozialen agendan gero eta nabarmenago agertzen da enpresak eta giza eskubideen arloan lotesleak diren betekizun juridikoak indarrean ipiniko dituen nazioarteko itun baten beharra. Nazio Batuen Erakunde-ko Kontseiluak itun hori eraikitzeko bidean, duela bi urte gobernu arteko lantalde bat sortzea erabaki zuen. Urriaren amaieran lan talde horren bigarren bilera erronda gauzatuko da Genevan. Interes orokorra iparrorratz duten giza eskubideak enpresen mozkin gosearen gainetik lehenestean datza arrakastarako giltza. ■

Puzzle premia

Aurreko asteburuan, Jose Migel Etxeberria *Naparra*-ren inguruko aipamenek berriz harrotuko zituen aspaldiko beldur eta mamuen garaietako oroitzapenak, noizbait historia hori osatu eta aurrera jo egin ahal izateko tirria, hauspotuko memoriak baita memoria grinak ere. Garaikoa da gaia, herri memoriarena eta segur aski sintomatikoa da behar dorpe batez. Batzuen ustez goizegi: ez dut arras bat egiten.

Errelatoa eta memoria hitzek ez baitutuzte berdinek erabiltzen eta ororen buru bi gauza baitira. Lehena, kontaketa xehea, lehia politikorako tresna bat gehiago baizik ez denean, *voyeurismoa*-ren mailan kokatzekoa da, gehienetan. Besteari zentzu zabalagoa har dakioke, gatazkaren ondorioen tratatzeko atalean sartzekoa, hau ez da baitezpada militanteen kontakizunean zentratzen batetik eta onartzen die lekua posizio desberdinekoei. Eta honetan badira jorratzeko asko, datugintzan, aldarteetan, pertsonak, mugimenduak... Zer dakit, ba, nik!

Batez ere, badira zentralak ez diren pertsonak, saihetsean edo kolateralak izan direnak gertakari horiez guztiez. Interesgarria baino, funtsezkoa zait horien lekukotasunen bilketa. Guztiena. Eta ahal bezain fite, oroimenak, garai moderno hauetan, geroz eta lasterrago ihes egiten digulako. Eta pozten naiz azken boladan agertzen ari baitira hainbat lan interesgarri.

Aste honetan publikatu den *Lisipe* saileko lehen atalak horretaz dihardu eta ikusmolde bereziaz, borroka armatuaren gaia tratatuz emazteen ikuspegitik. Puzzleak pieza asko falta dituelako seinalea: orain arte emazteen parteak falta dira. Iparraldekoen piezak gisa bera, besteak beste.

Badira azken bi urteetan Iparraldekoak diren lan batzuk, arras baliosak. Batzuk soziologia lanak dira, besteak kazetaritzakoak, besteak literaturakoak.



Bea Salaberri

IDAZLEA

@Beatxoa



Antton Olariaga

Esaterako, *Bisaiak*, *jauziaren aurpegiak* egitasmoa, zeinetan 80-90 hamarkadetako jendeen lekukotasunak biltzen diren. Hortik dira ere Gabi Mouescaren berriki euskarara itzuli *Lepogogorra* elkarrizketa nahiz Kristiane Etxaluzen lekukotasunak, horietan garbi azalduak direlarik Iparraldeko gazte batzuen ibilbideak eta ondorioz engaiamenduak sortu kezkak. *Berria*-k baditu bestalde iheslarien lekukotasun aberatsak bildurik GALi buruzko erretrospektiban, gizartearen eta giza harremanen irudiaren emaile –beste hainbat aipatzeko lekuri ez–. Domaia dena, ez dakit zenbatenganaino iritsiko diren lan horiek, molde barreiatuan argitaraturik baitira.

Inportantea zait, gertakaria baino, historia soziala, sentitu dena, jendeen arteko harremanen bihurtzekoa, nork bere buruarekin ukan buruhausteen transkripzioa, gisa batez edo bestez. Oroime-na iraungiko da eta badator belaunaldi bat ez duena ideiarik izanen gertatuaz eta tresna gutxi ulertu ahal izateko.

Gure historia hurbilaren puzzlea, hori bizi izan dutenen lekukotasunak bilduz egin behar dela lehentasunez uste dut eta jada egin behar dela, piezak batuz. Ez dezaten hemendik zenbait hamarkadara gure ondokoek beharra izan asmatzeko, bilatzeko eta erantzun distorsionatuak kausitzeko, gaur gerla garaikoekin gertatzen ari den bezala.

Zeren, guhaur ez bagara ausartzen, beste batzuk ez baitira kezka edo konplexu berekin ibilki. Gure historia hurbilaz idatziko dute batzuek kilometrikoki, usu erdaraz, aiherkundetik maiz, noizbehinka indiferentziatik. Hala nola frantses zenbaitzuen lanak, adibidez Marin-en fikzioa edo Sureau-ren autobiografia, baita Chalvidant, Massey eta gisa berekoenak ere. Horiek ez dute buruhausterik Euskal Herriaren eta herritarren analisia deskonplexaturik proposatzeko, batere. ■

Kontzertazioa



Mikel Irizar
GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIKO HIZKUNTZA
BERDINTASUNERAKO
ZUZENDARIA
@mirizarberdin

tuna edo hitzarmena behar zuen, baina hiztegiaren kontra ere eutsi egin diot hitzari, bide bat egin duelako gurean: baditugu ikastetxe kontzertatuak, baita euskaltegiak edo ospitaleak ere. Beste hamaika ekimen ditugu hitzarmen bidez funtzionatzen dutenak, baina ez da gauza bera. Nolabait esateko, kontzertazioak iraun egiten du, hitzarmenak tarteka erori egiten dira.

Bi kasuetan funtzio soziala duten ekimenez ari gara, gehienetan gizartetik sortuak, eta erakunde publikoen dirua jasotzen dute bere jardueraren funtzio soziala mantendu eta garatu dezaten.

Europar ezohikoa den tamainan daukagu Euskal Herrian gizarte ekimena, eta hori kapital soziala da, aberastasuna. Parean daude erakunde publikoen ahalmena eta baliabideak. Biak ondo uztartu direnean lortu ditugu emaitza bikainak. Eta biak uztartuta lortuko ditugu aurrerantzean ere. Alegia, kontzertazioa sakontzeko eta hedatzeko bideak aurkitzea komeni zaigu.

Lehenik eta behin, lankidetzarako konfiantza areagotu beharra dago; oraindik bada zer hobetua esparru askotan. Bigarren, uztarriaren kalitate juridikoa gorenera eraman behar da; errazegi ezartzen zaizkio lankidetzara publiko-sozialari helegiteak edo susmoak. Azkenik, ikuspegiak adostu behar dira erakunde publiko eta gizarte ekimenaren artean, bigarrenaren jarduerak bete

dezan bere funtzio soziala, eta bi aldeen artean osagarritasunik handiena egon dadin.

Aplika dezagun goian esandakoa euskal komunikazioaren esparrura. Badago zati bat publikoa –EITBren “euskal” atala– eta bigarren bat diru laguntzak jasotzen dituen, euskararen sustapenean duen eraginagatik. Esparru horretan badaude 1.000 profesionaletik gora, baina kostata lortzen da arrakasta –hau da, eragin indartsuanoizean behin, han edo hemen.

Gainera, euskal hedabideak murgilduta daude komunikazio orokorraren bilakaera azkar eta kontrolik gabean. Galderak pilatu egiten dira: iraungo du egungo telebista ereduak ala mila pantailetan zatikatuko da? Egongo da egunkari-rik paperean etorkizun hurbilean ala egunerekoa osorik doa internetera?

Demagun gurean adosten dela hamar urte barrurako ikuspegi bat, telebista publikoaren eta prentsa idatzia etorkizuna barne; zehazten dela funtzio sozial bat hainbat helbururekin lotua –hizkuntza eta genero berdintasuna, bizkidetza...–, eta demagun, kontzertatzen dela hainbat egituraren arteko artikulazioa lankidetzan jarduteko, eta adostutako funtzio sozialari dagokion finantzazio partekatua eta egonkorra. Orain baino hobeto genbiltzake, edo?

Orduan, zergatik dago antzeko zerbait oso garatua –esaterako– euskaltegiaren eta komunikabideetan ameskeria dirudi? ■

#HillarySelfie



Miren Artetxe
BERTSOLARIA
@mirenartetxe

Orlando, Florida. Irailak 21. Hillary Rodham (Clinton) kanpainako ekitaldi baten ondoren oholtzatxo batera igota eta eskuin besoan goian, publikoa agurtuz, irribarrez. Parean pertsona mordoa (gehienak emakumeak, gehienak gazteak, ia denak zuriak), lehendakariari bizkarra emanez. Ez da protesta keinua. Selfie bana ateratzen ari dira.

Argazkia biral egin da eta gaur egungo (emakume) gazteen nartzisismoaren adierazle goren jo du askok. Hillary bera izan zen, ordea, zaleei selfiea ateratzeko proposatu ziena. Barbara Kinney argazkilari ofizialarena da argazkia, eta kanpaina zuzendaritzak zabaldu du.

Produktu pertsonalizatuak masan saltzen dizkigutenotan, argazkiaren marko barruan nahi denaren ondoan norbera agertzeak, nahi dena objektu eta norbera subjektu bilakaratzen du, itxuraz. Protagonista izateko aukera saltzen digute eta produktuak, besteak beste, selfiegarria den heinean izango du arrakasta.

Baina ezin dut erabat ulertu zergatik ez duten argazkia beste angelu batetik atera (zale-masa aurrez, nor bere objektibotxoari begira; gibelean Hillary, boteretsu, kamera ofizialari so), edo zergatik zabaldu duten. Eta *mise en abyme* amaigabe honetan subjektuak eta objektuak ezin bereizita nabil. ■

Sanjurjo eta (im)Mola zio

Hanpuruskeria poetiko epikoan saiatuz ibiliko zen norbaitek sortuko ote zuen “Covadonga Berria”rena, espainiar II. Errepublikaren garaietan, eskuineko tradizionalistaren batek. Historikoki, badakigu horrelako poesia epiko eta mistikorako bere burua dohaindutat zuen Maximo Ortae untzuetarrak, ordurako *La Tradición Navarra* egunkariko zuzendari ohia berau, erabili zuela poema batean 1934an.

Hego Euskal Herriari egokitu zion izendapena eskuin tradizionalista hark, seguruenik Euskal Estatutuaren barnean legedia errepublikano laikoaren despit Vatikanorekiko harreman diplomatiko propioetarako eskumena planteatu zen garaietako giroan, 1932tik aitzina. Gero, Francok, Molak eta Sanjurjok gerra piztuta, Nafarroari egokitu zioten bereziki. Bidenabar eta bitxikeria gisa aipatzeagatik, Asturiaseko fronte errepublikanoan komunistek ere erabili zuten artikulua batean gutxienez Covadonga Berriarena, Asturiasetik Espainia errepublikanoaren birkonkistaren beharra gogoan, fronteko bihotz asturiarrak berotu nahian.

Don Pelaioaren, Covadongako Ama Birjinaren eta Birkonkistaren mito nazional-katoliko gisa iraun du hainbat burutan gaur arte, eta Nafarroa Garaian bereziki, horrelako erramoldeak. Eta



Bixente Serrano Izko

IDAZLEA

@Bixentesi

UPNren garaiak ziren, uste zutenean den-denak jarraituko zuela paraje hauetan “sekularki”, klerikalismoaren eskuetan. Horren barnean, jakina, Francoren gurutzadaren aldeko memoria ukitu ezina. Aldatu dira gauzak, ordea

horretan tematu nahian jarraitzen du, antza denez, Perez Gonzalez Iruñeko apezpikuak. Ez zuen eskola militarra alferrik galdu 2003-2007 tartean Apezpiku Militarra izan zenean eta bere hurrengo apezpikutza, 2007tik hona,

nazional-katolikoaren ustezko Covadonga Berri honetan eman zioten.

UPNren garaiak ziren, uste zutenean den-denak jarraituko zuela paraje hauetan “sekularki”, *in sæcula sæculorum*, klerikalismoaren eskuetan. Horren barnean, jakina, Francoren gurutzadaren aldeko memoria ukitu ezina. Aldatu dira gauzak, ordea, eta apezpiku militar ohiak noizbait hartu beharko zuenik uste ez zuen papera hartzera beharturik ikusi du bere burua, bere ustezko Covadonga Berri honetako apezpiku gisa orain: alegia, Gurutzada Saindu hartako Sanjurjo eta Mola martiri(tzaile)en erlikiak euren orain arteko aldare-hilobian mantentzeko misio sagaratua. Lege-trikimailuak, frankismo garaietan apezpikutzari eman omen zioten auskalo zein eskubide astindu du oraingoz XXI. mendeko Birkonkista kausaren gurutzu berriak. Frankismoaren legedia betetzeko eskatzen ari da.

Egia erran, hitzik gabe ni neu Perez Gonzalezen jarrera gaitzesteko hainbatek erran dutenei gehitzeko, zain nago apezpikua lege-trikimailu frankistetatik bere eskumen kanonikoetara noiz pasatuko: erran nahi baita, Joseba Asironi, udal alkatetzari sostengua ematen diotenak, nafar gobernu osoa, eta udal erabakiaren aldeko kristo oro eskumatzerara. ■

Xilaba

XIBEROA, LAPURDI ETA BAXENABARREKO

BERTSULARI XAPELKETA

2016

www.bertsozale.eus/xilaba

AIZIRITZE

Herriko gelan

Urriaren 22an, 17:00etan

Aurkezlea: Pettan Prebende

Baigorriko lehena
Izturitzeko bigarrena

+ Puntuazioaren arabera:

Lehena / Hirugarrena
Bosgarrena / Zazpigarrena

Euskara askatasun bat da

Euskaraz egiten dudanean aske naiz. Beste hizkuntzaren batean mintzo naizenean, behartuta mintzo naiz: egoerak horretara behartuta eta nire plastikozko erdarek behartutako molde zurrunetan: beste pertsona bat naiz, tonu bakarreko eta ñabardurarik gabekoa. Erdaraz ez naiz ni. Horregatik, nire buruari libertatea ematen diot euskaraz egiteko, lehen hitzetik oso aurrera, besteek erdarara pasako naizela espero duten egoeretan ere. Neure buruari zor diot, gizarte zapaltzaile-anitz honetan (generoagatik, arrazagatik, sexuagatik, hizkuntzagatik, klase sozialagatik...), askatasuna.

Azalpenik gabe

Bizitza osoa azalpenak ematen aritu gara eta enpo egin dut. “ARGIA euskara hutsean, zergatik?”; “Zer mundu zoragarri deskubrituko du euskara ikasten duenak?”; “Zergatik mintzatu behar dute egungo gazteek euskaraz?”; “Zergatik ikasi behar dute etorkinek euskaraz?”; “Zergatik jakin behar dute forentseek euskaraz?”. Aske denak ez du azalpenik behar. Autokritikoa da, norberarekiko eta norberak nahi duenean. Menpekoea dena da besteek etengabe zalantzan jarria. Euskaraz egiten diet erdaldun deklaratuak, euren gaitasuna “euskara ulertzen duzu?” (berriz ere galdera) batekin zalantzan jarri gabe. Neska kozkorretik aurrera inork ez zuen nire gaztelera zalantzan jarri, eta horrexegatik ikasi nuen. Hain ximple bezain irmo sozializatzen gara erdaretan. Egun galdera bakarrarekin erantzuten diet euskara kuestionatzen didatenean “eta zergatik egin behar dut erdaraz?”. Oraindik ez dut konbentzitu nauen azalpenik jaso.

Nor bere zilborrean

Askatasuna horixe ere bada. Ez, noski, munduaren zilborra zarela sentitzea,



Estitxu Eizagirre Kerejeta

ARGIAKO KAZETARIA

@eeizagirre

baina bai, noski, norberaren zilborrean norbera egotea. Ardatz kontua. Erdaretara pasatzen garenetan, zenbatetan egiten dugu norberaren zilborrean beste bat jarri dugulako? Ikasteko zaharregia den gaixo hori, egunerokoan nahiko lan badituen iritsi berria, harreman oso ona dugin lagun sinpatikoa... eta atoan, gure zilborretik jaisten gara eta leku egiten diogu, kortesiaz, bakeagatik, eskuzabaltasuna bailitzan, hura eroso sentituko den hizkuntzari. Norbera deserosotasunera ohitu den jarrera zozoaz, “lasai, nireak ez du inporta” esanik etengabe besteak zerbitzatzen ari denaren moduan.

Orain euskaraz egiteko libertatea hartzen dudan guztietan, Rosa Louis Parks-ekin gogoratzen naiz. Pozik, aske, harrotasunez, autobus edo gizarte honetan nire eserlekua badagokidala sentitzen dut. Eta dagokidan eserleku hori hartzen dut. Banaiz duin, altxatzeko iradokitzen ari zaidan beste hori adina, eta beraz, nire lekuan jarraitzen dut, lasai, pozik, irria ahoan. Eta neure golkorako barre egiten dut konturatuta zenbat alditan altxa naizen eserlekuetik inork eskatu baino lehen, egoera tentsoei aurre hartu nahirik zibikoki.

Zenbat alditan desplazatu dudan nire burua dagokidan lekutik, baita nire zilborretik ere. Zenbatetan eta txintik atera gabe egiten dugun euskaldunok gure buruaz beste.

Euskaldun askeak erdigunean

Nire buruari libertate hori ere eman diot, euskaraz aske sentitzen direnak izatea nire xede, helburu, jomuga. Haie-taz eta haientzat hitz egitea. Barkatu, ez dut euskal herritar denak konbentzitu eta denei irtenbidea emango dien diskurtso, erantzun edo planik. Erakunde eta jende inportantea arduratzen da horretaz, eta mila esker, oso beharrezkoa da lan hori. Baina faltan nabari dut euskaraz aske sentitzen direnak plan, diskurtso eta kanpainen zentroan jartzea, ia beti. Eta mesedez, ez darabaina baino karga eta lan gehiago jartzeko (“zuk lehen hitza euskaraz”, “zuk salatu”, “zuk eman eredu”, “zuk”...). Erosoago sentitu eta askeago izan gaitetzen baizik. Euskaldun askeen logika, diskurtso autozentratua jartzea erdigunean, ia beti.

Honezkero elebakarrik ez duen hizkuntza anormal horietakoak gara. Bizi zirenean ez genituen zentroan jarri, ez genuen batere baliatu euren ekarpena. Poztu eta harrotu egiten gara elebakarrik ez izateaz (beti ere euskara bada hizkuntza bakar hori), baina ai, ahazten zaigu esplikatzea elebakartasuna bukatu dela, erdaraz hala direnei. Edo atzerititik etorri eta erdarara soilik bideratzen ditugunei.

Elebakarrik akabatuta, euskaraz aske direnak, kontzienteak, ideologizatuak, politizatuak, dira orain zentro. Erakundeentzat ez dakit, niretzat argi. ■

Artikuluak osorik irakurgai (“motxilarik gabe” eta “askapen prozesuak kolektiboan egiten dira” zatiak barne) www.argia.eus-eko Gaitzerdi blogean.

Donostiako Protokoloa

BADATOR HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ALDE BORROKATZEKO TRESNA BERRIA

Europako hizkuntza komunitate gutxiagotuetako 200 gizarte eragile ingururi galdetu diete: zuen hizkuntza eskubideak errespetatzeko zein neurri hartu behar direla uste duzue? 400dik gora ekarpen egin dituzte. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren bultzatzaileak Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua eta Kontseilua dira. Protokoloa ez dute paper hutsean geratzeko landu, etorkizunerako tresna izatea da nahia. Gizarte eragileek proposatu dituzte protokoloaren nondik-norakoak, eta hemendik aurrera lanabes izango dute.



Onintza Irureta Azkune
@oirureta

Euskalgintzak hiztunak, espazioak, tresnak sortu ditu, eta aldarrikapenak egin ditu. Badaki zer den hizkuntza eskubide urraketa, eta buruz dakizki eskubideak bermatzeko hartu beharreko neurriak. Europako hizkuntza gutxiagotuetako eragile sozialei beste hainbeste gertatzen zaie. Horregatik, protokoloaren prozesuan badira bi sustatzaile (Donostia 2016 Europako Kultur Hiribu-

rua eta Kontseilua), bada talde antolatzaile bat (Linguapax, Gutxiengoen Gaietarako Europako Zentroa, PEN Itzulpen eta Hizkuntza Eskubideen Batzordea, Ordezkatuak Gabeko Herri eta Nazioen Erakundea, Europako Hizkuntza Berdintasunaren Aldeko Sarea eta CIEMEN) eta bada batzorde zientifikoa, baina protokoloaren oinarriak Europako 200dik gora eragilek ezarri dituzte.





Zertarako da protokoloa?

Hizkuntzen aldeko herri mugimenduek eskubideak bermatzeko 400dik gora neurri proposatu dituzte. Neurriak eta adierazleak dira protokoloa hitz giltzarrietako bi. Zer esan nahi duten azaltzeko adibide pare bat.

Beste hizkuntzetan sortzen den literatura gure hizkuntzan irakurtzeko eskubidea daukagu. Beraz, eskubide hori bermatzeko neurriren bat hartu behar da. Eman dezagun ezartzen dugula neurria zeinaren arabera hurrengo bost urtetan 50 liburu itzuliko ditugun euskarara. Neurria betetzen den edo ez jakin behar dugu ondoren, eta horretarako bi adierazle gertutik jarraitu behar dira: hitz eman diren epeak eta neurri hori betetzeko ardura nork duen (herriko etxeak, foru aldundiak...).

» Eman dezagun ezartzen dugula neurria zeinaren arabera hurrengo bost urtetan 50 liburu itzuliko ditugun euskarara

Telebistaren adibidea da beste bat. Neurri bat izan daiteke eskatzea telebista kateen artean bat hizkuntza gutxiagotuan aritzeko gorde behar dela. Neurri hori betetzen den ala ez jakitea erraza da, edo badago korsikerazko katea edo ez dago. Beste kontu bat litzateke ordea, kate oso bat eskatzeaz gain, gainerako kateetan korsikera entzun dadin hizkuntza irizpideak jartzea, esate baterako korsikera hiztunei hizkuntza horretan egiten uztea nahiz eta katea frantsesez izan. Norena da hizkuntza gutxiagotua telebista kateetan egotearen ardura? Zein epetan eta zein portzentajetan agertu behar du korsikerak? Galdera horiek erantzun beharko dira.

Besapean kaiera hartuta

Kaiera da beste hitz giltzarria. Hizkuntza komunitate bakoitzak eta gizarte eragile bakoitzak, bere kaiera izango du. Protokoloak ez du denentzat berdina balio. 150-180 neurri inguru izango dira guztientzat. Alabaina, bederatzi milioi pertsonen hitz egiten dute katalana eta hizkuntza ofiziala da hiztun askoren

MARCOS MACEIRA, A MESA POLA NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA

“PROTOKOLOA EZ DA ERAKUNDE PUBLIKOEN ESKUTIK EGIN, BEHETIK EGIN DA”

Marcos Maceira A mesa pola normalización lingüística plataformako presidentea da. Plataforma 1986an sortu zen eta gizarte eremu guztietako 4.000 bazkide ditu. Helburua galizieraren normalizazioa lortzea da. Kontseiluarekin zuzeneko harremana izan zuten protokolorako neurriak lantzeko.



WWW.PRAZA.GAL

Zer iruditu zaizue Donostia 2016ren gonbidapena?

2000. urtean Santiago izan zen Europako Kultur Hiriburua eta apenas hizkuntza aipatu zen. Donostiak gai horri buruz utziko duen legatua garrantzitsua izango da. Gizarte erakundeek ekarpenak egitea zeharo beharrezkoa da eta Kontseiluak eta Donostia 2016k aukera hori ematen digute.

Protokoloa ez dute estatuek egin, gizarte mugimenduek baizik.

Guk ez daukagu batere babes publikorik. Are gehiago, Galiziako Gobernua ol-

darkorra da gurekin eta galegoaren alde ari diren beste eragileekin. Guretzako Donostiakoan parte hartzea onespenez bat da, guretzako eta Europar hizkuntzaren alde ari diren beste mugimendu guztientzako.

Aspalditik ari gara salatzen Hizkuntza Eskubideen Karta Unibertsala ez dela betetzen, eta protokoloa horren guztiaren abiapuntua da.

Protokolo hau desberdina da, ez da eremu zientifikora soilik murriztu eta ez da erakunde publikoen eskutik egin, behetik egin da. Galizian gizarte mugimendu garrantzitsua dago, era guztietakoa, protokoloa bete dadin nahi duena.

Abenduan Donostiako ekitaldian izango al zarete?

Bai. Zeharo babesgabe gaude, gure gobernuak ez ditu konplitzen bere betebeharrak. Horrelako protokolo bat nahi dugu, eta behar dugu, Berlingoak alemanez bizi diren bezala gu gure hizkuntzan bizi gaitezen.

bizitokian. Ezin katalanaren pare jarri okzitaniera (580.000 hiztun), frisia (400.000 hiztun) edo aragoiera (12.000 hiztun). Litekeena da katalanek protokoloak proposatzen dituen neurrien %90 beteta izatea, eta oso litekeena beste hainbat hizkuntzatan %90 betetzeko egotea.

Horregatik kaiera. Hizkuntza komunitate edo eragile bakoitzak bere buruari galdetu beharko dio, “guk zein eskubide dugu urratua, nolako neurriak hartu nahi ditugu, zein epe jarriko ditugu, nori eskatuko dizkiogu kontuak?”.

Donostiako euskalgintzak adibidez bere kaiera izan dezake: Donostiako Udalak zer egin beharko luke protokoloa betetzeko? Hau, hori eta hura egin

ditzake Udalak. Gizarte eragileen lana litzateke eskumenak zehaztu eta neurriak eta epeak jarraitzea.

200etik gora herri mugimendu

Euskal Herrian 100etik gora eragile ibili dira protokoloaren bueltan. Horieta askok sektorekako lanaketan hartu dute parte, hau da, hezkuntza, administrazioa, sozioekonomia, kultura/hedabideak eta izen bereziak (toponimia eta antroponimia) ataletan.

Euskal Herritik kanpo 80tik gora eragilek hartu dute parte. Ondoko hizkuntza komunitateetakoak aritu dira lanean: Irlandako gaelikoa, Eskoziako gaelikoa, galesera, kornubiera, galiziera, katalana, asturier, okzitaniera, bretoie-

PAUL BILBAO, KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA

“HIZKUNTZA HEGEMONIKOETAKO ERAGILEREN BATEK PROTOKOLOAREKIN BAT EGITEA NAHIKO GENUKE”

Zer da protokolo bat?

Kontatuko dizut han eta hemen aurkezpenez egin ditudanean zer ariketa egiten nuen gizarte eragileekin. Entzuleei esaten nien, “protokolo hitza esaten dudanean zein hiri datorkizue burura?”. Eta normalen jendeak esaten zuen: “Kyoto!”. Eta gero galdetzen nien, “eta ‘Kyotoko protokoloa’ hitzak esaten ditudanean zer gai datorkizue burura?”, eta orduan esaten zuten: “Ingurumena”. Hurrengo urratsa: “eta nik esaten badut Kyotoko-protokoloa-ingurumena, hor barruan zer dago?”. Eta jendeak esaten zuen gobernuek konpromisoak hartu eta bete egin behar zituztela. Modu juridikoagoan bestela litzateke, baina orokorrean esanda protokoloak zer dira bada? Nazioartean onartzen den hitzarmen bat nola bete zehazten du protokoloak. Guk 1996ko Barzelonako Hizkuntza Eskubideen Aldeko Deklarazio Unibertsala hartu dugu, eta horren protokoloa egin dugu. Deklarazio horrek hainbat eskubide aitortzen du, eta guk, hori betetzeko zein neurri hartu beharko liratekeen proposatuko dugu.

Zu European ibili zara protokoloan parte hartu duten gizarte eragileekin. Nola bizi izan dute prozesua?

Hasieran errespetu handiz hartzen zuten proposamena. Joan aurretik txostena bidaltzen nien eta hara joaten nintzenez esaten zidaten: “Irakurri dugu txostena eta ez dakigu ekarpenak nola egin”. Baina ariketatxoren bat egin eta “a, hori da? hori egiten badakigu!”. 400 ekarpenetik gora jaso ditugu.

Gizarte eragileek proposatutako neurri asko oso antzekoak direla esan izan duzu.

Toki desberdinetatik datoz, baina oso antzekoak dira. Hedabideena adibidez, oso argia da. Lizentziak aipatu dizkigute, baita telebista kateetako irizpideak ere, adibidez, hizkuntza gutxiagotuko hiztunak hizkuntza hegemonikoan emititzen duen katean bere hizkuntzan egiteko aukera izatea. Diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten hedabideei hizkuntza kuota jar-



DANI BLANCO

tzea ere eragile batek baino gehiagok aipatu digu.

Protokoloak balio berezia al du hizkuntza komunitate oso txikientzat?

Kornubierako ordezkariekin gogoratzen naiz, gurea baino askoz makurrago dago kornubiera. Haien protokoloa apustu handia da. Aldarrikapenen bat egin behar duten aldiro “ez gara gu bakarrik, milioika hiztun daude eskaera honen atzean” esan ahal izateari balio handia ematen diote. Oso gutxi dira, oso laguntza gutxi daukate eta duela gutxi Erresuma Batuak diru-laguntzak eten dizkiete gau eskoletarako.

Hizkuntza hegemonikoetako ordezkariak emango al diote atxikimendua protokoloari?

Zoritarrez denak izango dira hizkuntza komunitate gutxiagotuetaoak. Nahiko genuke hizkuntza hegemonikoetako gizarte eragileren batek bat egitea, esanez “hau da bidea hizkuntza eskubideak bermatzeko, bizikidetzat lortzeko”.

“Hiztun oso gutxiko komunitateentzat protokoloa apustu handia da. Aldarrikapenen bat egin behar duten aldiro ‘ez gara gu bakarrik, milioika hiztun daude eskaera honen atzean’ esan ahal izateari balio handia ematen diote”

Atxikimendu horiek lortzen saiatuko al zarete?

Bai, baina gure errealitate hurbilean zaila ikusten dugu, Espainiako eta Frantziako Estatuetan alegia.

LEIRE TXAKARTEGI, ELA-KO EUSKARA ARDURADUNA

“ERAKUNDEEI INTERPELAZIO ZUZENA EGITEKO BALIO BEHAR DU”

Gustura egindako lanarekin?

Parte hartzeko metodologia egokia iruditu zaigu. Kontseilua propio bildu zen gurekin eta ELA barruan, euskara batzordean, gaia lantzeko aukera izan dugu. Eragile bakoitzarekin lanketa berezia egitea asko eskertu dugu.

ELAk nolako ekarpenak egin ditu?

Oso zehatzak egiten saiatu gara, beti ere lan munduan langileen hizkuntza eskubideak bermatzeko. Esparru publikoan, administrazioan, osasungintzan adibidez nahiko ekarpen zehatzak egin ditugu eta esparru pribatuan kanpo eta barne erabileraz, kontratazioez egin ditugu ekarpenak. Adibidez, garrantzia eman diogu negozioz kolektiboa euskararen normalizazioan lan tresna bezala aldarrikatzea.



Ekarpen batzuk aipatuko mesedez?

Enpresan terminologia normaltasunez erabiltzeko hiztegi propioa sortzea; langileek hizkuntza gutxituan lan egiteko behar duten ezagutza lortzeko baliabi-

deak eskatzea; langileek dokumentazioa ele bitan jaso eta betetzeko aukera izatea; errotulazioa euskaraz egotea, euskara batzordea osatzea. Administrazioan: hizkuntza eskakizunak kontratazioetan; hizkuntza eskakizunak betetzeko epeak eta irizpideak zehaztea; Osakidetzan, garapen profesionalean hizkuntza gutxituen ezagutza eta erabilera baloratzea.

Zertarako balio du protokoloak?

Eragile sozialen ekarpenetan oinarritzen da eta neurri zehatzak izango dira. Horrek erakundeei interpeleazio zuzena egiteko balio behar du, beste era bateko hizkuntza politika eskatzeko. Beste gauza askotan bezala, guk uste dugu eragile sozialok akuilu lana egin behar dugula. Interpeleazioak tresna izan behar da.

ra, korsikera, friulera, sardiniera, frisiera, ipar frisiera, samiera eta ninorsk.

Beste hauek ez dute neurririk proposatu baina protokoloari atxikimendua emateko prest daude: voro hizkuntza, udmurtera, erziyera, kaxubiera, aragoiera, tatar hizkuntza Estonian, Krimeako tatar hizkuntza, aromaniera, Transilvaniako hungariera; daniera (Alemanian) eta alemana (Danimarkan).

Atxikimendu bila

Urriaren 25ean talde antolatzailea bilduko da eta protokoloaren testua itxiztat emango du. Neurriak zehaztuta, eragile sozialei protokoloari atxikimendua adierazteko eskatuko zaie. Abendu-ko ekitaldia bitartean ez du denborarik emango Europako eragile guztiengana heltzeko, baina erronka, gutxienez hizkuntza komunitate gutxiagotu guztiak ordezkatuta egotea da.

Abenduaren 15, 16 eta 17ko ekitaldiek prozesuaren bukaera tankera hartuko dute. Lehen bi egunetan Europako Hizkuntza Aniztasunaren Foroa egingo da Donostian eta adituak eta alor horietan lanean dabiltzanak elkartuko dira. 17an, Donostia 2016k eta Kontseiluak protokoloa aurkeztuko dute.

Hiru eguneko jardunak amaiera itxura baino ez du hartuko, izan ere protoko-

loaren egitasmoak jarraipena izango du. Nolabaiteko egitura osatzea aurreikusi dute protokoloari bizindarra emateko.

Hemendik aurrera, Europako herri mugimenduek atxikimendua eman dezaten lanean segituko dute, eta Europako mugak gaindituta, nazioarteko oihartzuna lortzen ere saiatuko dira. Protokoloa helaraziko zaie nazioarteko erakunde garrantzitsuenei, besteak beste, Europako Kontseiluari, Nazio Batuen Erakundeari eta Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundeari. Erakundeekin eta ospeko pertsonekin egon nahi dute, protokoloa erakutsi eta haien babesa lortzeko. Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiaren iritziz, “erakundeekin baino errazagoa izango dela uste dut pertsonekin, eta garrantzitsua da aita eta ama pontekoak edukitzea”.

Berrespenak lortzeko ahalegina egingo dute batzuek, eta gizarte eragileek berriz, kaiera estreinatzeke ordua izango dute. Bakoitzak bere etxeko lanak prestatzeko aukera izango du.

Zoritarrez ez dute aspertzeko betarik izango. ■

Artikulu hau eta beste asko itzultzen ditugu ingelesera. Euskal Herriko berriak nazioartean Euskal Herriatik zabal ditzagun. Artikulu hau argia.eus/english helbidean aurkituko duzu.

11itzulpen

EUSKARATIK
INGELESERA
ZUZEN

INGELESETIK
EUSKARARA
ZUZEN

<http://www.11itzulpen.eus>

info@11itzulpen.eus

Skype:

11itzulpen (34) 699 433 121

Moisés Borges de Oliveira, Brasilgo MABeko kidea:

“BRASILEN URTEGIEK KALTETUTAKOEN %70EK EZ DU INDEMNIZAZIORIK JASOTZEN”

Hainbat eragile politiko, sindikal eta sozialek antolatuta iragan irail bukaeran Bilbon egin ziren III. Nazioarteko Topaketa Ekosozialisten gerizpean iritsi zen Brasildik Euskal Herrira Moisés Borges MABeko (Urtegiek Kaltetutakoen Mugimendua) ekintzailea. “Mugimendu sozialak: erresistentziatik eredu energetikoaren eraldaketara” tailerrean parte hartzearekin batera ordezkatzeko duen mugimenduaren berri ematera etorri zen Borges, hainbeste buruhauste sortzen dizkien Iberdrolaren sorterrira.



Aitor Kaltzakorta
@Kaltzakorta

Urtegiek Kaltetutakoen Mugimenduaren portugesezko siglak dira MAB. Zer da?

Mugimenduak 60ko eta 70eko hamarkadetako Brasilen dituen erroak. Garai horretan presa hidroelektriko andana eraikitzen hasi ziren herrialdean. Milaka lagun kaltetzen zituen eraikitzen hasten zen urtegi bakoitzak, sekulako degradazio sozial eta ambientalaren eraginez. Tokiko borroka pizten hasi ziren orduan, han eta hemen, baina elkarren arteko lotura garbirik gabe. Brasil herrialde kontinental da, oso handia, eta batzeko beharra ikusi genuen: enpresek herrialde osorako estrategia bera bazuten, geuk ere herrialde osorako estrategia bateratua



AITOR KALTZAKORTA

behar genuen. 1991n lortu genuen. Egun lurralde osoan gaude gure borrorak aurrera eramaten. Bide luzea dugu oraindik. Urteotan 2.000tik gora presa eraiki dira, eta milioi eta erditik gora dira horriengatik kaltetu eta desplazatuak. Horien %70ek ez du jasotzen ezer; ez lur berririk, ez indemnizaziorik...

1941eko lege batean oinarritzen da babesgabetze hori, ezta?

Hori da, lege horrek esaten duenaren arabera luraren jabeek baino ezin dute kalte-ordainik jaso. Gure herrialdearen errealtatea da, baina, 200 urtez gaindi belaunaldiz belaunaldi lursail bat esplotatzen aritu direnetarik gehienek ez dutela jabetza aitortzen dien dokumentaziorik. Komunitate brasildar anitzetan ez da inoiz halako titulurik behar izan, eta hortik datoz arazo asko, legeak ez baititu kaltetutzat onartzen. Enpresek lege hori erabiltzen dute presioa eta xantaia egiteko.

Zein zen eraikuntza lanak egiten hasi zireneko egoera politikoa? Barea ez gero...

Garai horretan Brasilen agintea diktadura militarren pean zen. Gobernuak buruan zuen gauza bakarra herri lan izugarriak egitea zen, herrialdea garatzen ari zenaren itxurak egiteko. Epe horretan Brasilek eraiki zuen munduko presa hidroelektrikorik handiena. Handikeriazko zurrumbilo batean sartu zuten herrialdea ondorioetan pentsatu gabe. Gatazka izugarriak sortu ziren, eta jende asko izan zen jazarria, torturatua edota desagerrarazia. Garai korapilatsua izan zen ordukoa, neurri batean azkenaldian ere bizi-tzen ari garena, Dilma Roussefen aurkako *impeachment* delakoaren harira; Brasilgo demokraziaren kontrako estatu kolpea bizi izan berri baitugu iragan abuztuaren 31n: Michel Temer presidenteordea agintera iritsi da herritarren babesik gabe. Salbuespen egoera batean gaude beste behin ere, eta esan dezakegu 1985ean diktadura militarra bukatu zenetik demokrazia epe oso motza izan dugula.

Zer lotura du MABek MST (Lurrik Gabe-koen Mugimendua) eta Lula zein Dilma-ren gobernuetan euren burua ordezkatzuta ikusi duten beste mugimendu batzuekin?

MST eta MAB mugimendu garaikideak dira. Mugimendu anaiak garela esaten dugu. Lularen gobernuak-eta, koalizioa

izanik, herritarrentzat gauza on asko egin zituzten arren, gauza onuragarri gehiago egin zituzten enpresaburu eta elite ekonomikoentzat. Halere, haiek ez ziren ase onura horiekin, eta gehiago nahi zituzten. Esaterako, Lulak eta Dilmak onartu zuten lege bat dugu, esaten duena Brasilgo petrolioak eragindako mozkinen parte bat hezkuntzan eta osasungintzan inbertitu behar dela. Bi alorrotan eragin handia izan dezakeen dirutzaz ari gara.

“Enpresa pribatuek gure baliabide naturalak doan erabiltzen dituzte, eta energia oso garesti ordaintzera behartzen gaituzte”

“Azken hamarkadan Iberdrolak ia 4.000 milioi euro irabazi ditu hemen, eta ez du inolako inbertsiorik egin”

Diru publikoa esku pribatueta, beraz...

Chevron, Shell, Exxon eta sektoreko beste enpresa batzuek lobby izugarri indartsua dute eta eragotzi egiten dute inbertsio hori aurrera eramatea. Areago, Nazioarteko Harremanen Ministroak esan berri du Petrobrasen presa Chevroni emango diola [Petrobras enpresa erdi-publikoa da]. Hori Brasilen subiranotasunaren aurkako eraso onartezina da. Lehen aipatu dudan estatu kolpea, zentzu horretan, nazioarteko estatu kolpetzat jo behar dugu, pozik ez dauden eskumako indarren oldarralditik harago. Enpresa horiek eta gehiagok, Iberdrolak barne, Brasilgo baliabide energetiko oro kontrolatu eta bereganatu nahi dute. Guk ez dugu hori onartuko, eta jada aurrean gaituztenez, hasi dira euren agenda inposatzen. Michel Temerrekin berak “Etorkizunera zubia” programa aurkeztu du datozen urteotarako, Brasil agenda neoliberal basatian mugituzera eraman nahi duena.

Nola dago afera orain?

Brasil munduko hirugarren potentzia hidrikoa da, Txina eta Errusiaren atzetik. Neurria emateko, pentsa Brasilek maneiatzen duen energiaren %80 inguru iturri horretatik ateratzen dela. Europan oso bestelakoa da egoera, erregai fosilekiko, nuklearrekiko eta abarrekiko menpekotasun handia baitago. Guk energia hidriko iturri emankorra dugu, eta ekonomikoki hobari handiak ematen ditu. Kapitalak hori badaki eta bereganatu egin nahi du, baina herritarrak gara hori sufritzen dugunak, andana bizi baita erreka ondoetan. Iberdrolak Paranako Behe Iguazun badu dagoeneko kontratu bat sinatuta: energia megawatta 100 errealean (28 euro inguru)salduko du, produkzio kostua bost euro ingurukoa denean. Urtean 45 milioi euro garbi aterako ditu. Energia ereduaz mozkinak begira dagoela bistakoa da, eta ez behar sozialei begira. Enpresa estatalak megawatt bera bederatzi euroan saltzen du. Onartu ezin den gurpil bat da: enpresa pribatuek brasildarron baliabide naturalak doan erabiltzen dituzte, eta batere produkzio kosturik gabe, energia oso garesti ordaintzera behartzen gaituzte.

Iberdrola aipatu duzunez... 1997an iritsi zen Brasilera helburu garbi batekin: estatuaren enpresa elektrikoak bereganatzea.

Egungo egoera 90eko hamarkadan gertatutakoaren ondorioa da. Diktadura bukatutakoan neoliberalismo garai batean murgildu ginen Brasilen. Meatzaritza estatala zein energia sortzaile, banatzaile, saltzaile eta abarrak ere pribatizatu egin ziren. Iberdrola energia kate osoan egin zen presente, Nova Energiaren bidez. Azken hamarkadan ia 4.000 milioi euro irabazi ditu eta ez du inolako inbertsiorik egin. Duela gutxi Pernambuco hiru pertsona hil ziren goi tentsioko kableak apurtuta zeudelako kale erdian. Hori argindar enpresaren ardura da, ez bairik gabe, baina ez du ardura bakar bat hartzen bere gain. Areago, enpresa horretako mantentze lanetarako langile bat hiltzen da 45 eguneko. Lularen garaian enpresa estatalak pisu gehiago hartu zuen, guztiz pribatizatu izatetik sistema misto batera pasatu baitzen.

Eta Behe Iguazuko gatazkara iristen ari gara apurka.

2013an iritsi zen hara Zeru Urdin ize-



MABen mobilizazio bat Sao Paulon.

MARCELO CAMARGO / ABR

neko partzuergoa (Iberdrolak %39ko parte hartzea du bertan, ofizialki). Izen politegia hainbeste arazorentzat. Eraikitzen hasi eta batera Iberdrolak eta kontsortzioak esan zuten ez zegoela arazorik ia, eta zeuden apurrak konponduta zeudela. Horren aurrean, kaltetuo martxak, manifestazioak eta harroben okupazioak egin ditugu. Orduan hasi dira onartzen kaltetutako familiak zeudela. Absurdoa dirudi, baina gure lehen garaipena kaltetuak izan baginela aitortzea izan zen. Beno, hori ere erdipurdi, 360 familia kaltetu aitortu baitzituzten, guk ia 900eko erregistroa izan arren; 3.000 pertsona inguru. Eta aitortza partzalean geratzen da dena, aitortutakoei ere ez baitizkiete ordainitzen kalte-ordainak.

Ingurumen drama agerikoaz landa, dimentsio sozial eta humanoa ere aski latza da.

Argi eta garbi. Milaka herritar xehe etxerik gabe daude makinek hormak bota dizkietelako, bizimodua galdu dute, eta hiru urtez gaindi daramate inolako kalte-ordainik jaso gabe, urtero 45 milioiko irabaziak dituen enpresa batek ez baitu dirurik familientzat. Presaren lanak aldi baterako geratzea lortu genuen mobilizazioen eta ekimen juridikoen bidez. Baina justizia bera fartsa honen parte da. Enpresa kalte-ordainak ordaintzera behartuta dago, baina negoziatu egin dezake. Enpresak depositu edo fidantza gisako bat sartzen du familien kontuetan, eta epaitegiek enpresa ordaintzen ari dela ontzat ematen dute, diru hori familientzat erabilgarri egin ez arren. Gaine-

ra, ez da negoziatutako kopuru bat, alde bi behar baitira negoziatzeko. Brasilgo lurrik emankor eta onenak prezio negargarrietan eskuratzen ari dira. Hirian etxebizitza xume bat eskuratzeko ematen ez duten prezioetan. Gu nekazariak gara, eta lurra nahi dugu, ez dirua, lanean jarraitu ahal izateko eta herritarrentzako elikagai merke eta osasungarriak produzitzen jarraitzeko. Horrekin batera, geure herrian, geure eskualdeetan bizitzen jarraitu nahi dugu. Gure hildakoak lurpetik ateratzen ere ez digute utzi. Sustriak moztu dizkigute geure familiakoen hiltzen aurrean negar egitea ukatzeraino. Etxetik joan nahi ez badugu, gainera, presa ireki eta urpean geratzeko mehatxua luzatzen digute. Neurrigabeko zampaketa da, horren kontra ezin dugu ezer egin.

Hildakoak izan dira mugimenduan.

Jende asko izaten ari da jazarria. Kide asko ari dira mehatxuak jasotzen, kartzelaratuta izan dira, eta hil ere egin dituzte batzuk. Emakumeak ari dira bereziki hau pairatzen: ez dira kaltetutzat aitortuak. Emakumeak eta adinekoak ez baitira lan-indar enpresarentzat. Emakumeei ez diete onartzen negoziatzeko gaitasunik ere. Giza eskubideei eraso maila guztietan ematen ari da. Areago, prostituzioarekin eta indarkeria matxistarekin arazo handiak sortzen ari dira obra handietara iristen diren langileen eskutik. Adingabekoen aurkako jazarpen sexuala ere nabarmen hazi da.

Enpresen estrategia garbia da: lehenik mehatxua. Nahikoa ez bada, polizia bidaltzen digute, une honetan milizia papera jokatzeko duena, eta neurrigabeko indarkeria erabiltzen duena. Epai-leek eta mehatxuek eragiten ez dutenean zuzenean indarkeria erabiltzen dute gure kontra.

Eta lurra bera ere, babesgabe...

Atzeraezina da kaltea, maila ekologiko guztietan. Aurrera begira, ortzi-muga kezkaugarria da. Temarren gobernu ingurumen legedia okertzekotan da lobby industrialei men eginez –egungo legediak asko du hobetzeko baina ez da hain txarra–. Edozein proiektu egiteko inpaktu azterketarik egin behar ez izatea nahi dute. Dauden 2.000 presa hidroelektrikoez gain, beste 2.000 egiteko aurreikuspena dago une honetan. Beste milioi bat inguru kaltetu. Eta horrekin dena esanda dago. ■

IRAULTZA DAKAR NAFARROAKO HONDAKINEN PLANAK

Urriaren 26rako itxiko da planari alegazioak jartzeko aukera. Hondakinekiko kultura berria jarri nahi du indarrean Nafarroako Gobernuak datorren hamarkadarako. Hondakinak gutxitu, berrerabili eta birziklatu; ezer ez da zabortegira joango tratamendurik izan gabe. Hori guztia, errausketa bazterrean utzita.



Xabier Letona
@xletona

“Hondakinen prebentzioak ikuspegi berria behar du hondakinei buruz, hondakinak baliabide direla ulertuko duen kultura berri bat, herritarren engeinamendu aktiboa eta gizarte osoaren lana indartuko dituen, hondakinak eta haien ondorioak murrizteko. Kultura berriak, gainera, bestelako ikuspegi bat izan behar du emaitzen gainean, begirada gizartearen, ekonomian eta ingurumenean pausatuta”.

Prebentzio programa eta Nafarroako hondakinen kudeaketa plana 2017-2027 egitasmotik hartutako esaldia da eta laburbiltzen du Uxue Barkosen gobernuaren plana. Euskal Herrian azken hamarkadan hondakinen kudeaketan emandako aurrerapauso handien ispilu ere bada.

Foru erkidegoa, dena den, ez dator esku hutsik plan honetara, Nafarroa aitzindari baita berrerabiltzen eta birziklapen gaietan. Jadanik XX. mendeko 80ko hasieran hainbat esperientzia pilotu egin ziren Antsoainen, Iruñeko Donibane auzoan eta, besteak beste, Ermitagañan... Trantsizioaren ondorengo Iruñeko lehen alkate Julian Balduzen (PSOE) garaian. LARRUNeko 156. zenbakian irakurri daitezke kontuok, Alfonso Del Valek kontatuak.

Urte eta erdiko parte-hartze prozesua

Plan hau UPNren gobernuaren amaieran abiatu zen, 2015eko otsailean. Lehenagotik ere errausketa aurreikusten zuen plana egin zuen Yolanda Barcinaren gobernuak, baina Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak atzera bota zuen Sustrai Erakuntza elkarteak eta Sakanako Mankomunitateak jarritako salaketaren ondoren. Auzitegiaren ustez, planak ez zuen kontuan hartzen non eraiki behar zen erraustegia eta interes pribatuak –Olaztiko Portland zementu fabrikarenak– lehenesten ziren, interes publikoaren kaltetan.

Hilabete batzuetako kontua izan zen planarekiko UPNren gobernuaren lotura, 2015eko foru hauteskundearen ondoren, aldatetaren gobernuaren eratu baitzen Nafarroan. Gero Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerraren sostenguekin osatutako gobernu akordioek finkatu zuten hondakin plan berria egin behar zela. Udaletako aldaketa handiek ere aldeko haize izango ziren asmo berrientzat.

Otsailean abiatutako planarekin jarraitu zen, dagoeneko parte-hartze prozesu bat irekia baitzegoen, baina oso bestelako irizpideak sartu ziren agintari, instituzio, elkarte eta herritarrek biltzen zituen batzar haletara. Funtsean, parte-hartze

epea urte eta erdi luzatu da iazko otsailetik 2016ko irailera. Epe zabal horrek eztabaida eta ikuspegi aunitz bildu ditu, baina bukaerarako baita kontsentsu zabala ere.

Egoera irauli

Gaur egungo ekonomia lineala ekonomia zirkularrarekin ordezkatu beharra, klima aldatetari aurre egitea eta Europar Batasuneko zuzentarauen bultzada izan dira plan berriaren akuilu. Hondakin politika iraultzea da planarekiko helburu nagusia: gaur egun, indarra batez ere hondakinen kudeaketan eta ezabatzean jartzen bada, plan berrian funtsean prebentzioa eta kudeaketa zainduko dira.

Honen arabera, 2027rako hondakin guztien %75 berrerabili edo birziklatuko da –balorizatu– eta gainerako %25 zabortegietara bideratu, beti ere tratatua izan ondoren. Hau da, ez da ezer joango zabortegira tratatu gabe. Gaur egun, %32 balorizatzen da eta %68 ezabaketara bideratzen da.

Helburu hauek lortzeko, giltzarri da etxeko eta merkataritzako hondakinak ahalik eta sailkatuen biltzea. Hondakin hauek, beraz, bost frakzioetan bilduko dira: organikoa, materialak (plastikoa, metalak eta brika, izan ontziak edo ez),



papera, beira eta gainerakoak. Prebentzioan egingo den lanaren ondorioz, 2027an 2010ean baino %10 hondakin gutxiago sortuko da, 252.000 tona: horietatik %67 gaika bilduko da eta %33 gainerakoaren frakzioa izango da.

Etxeko bio-hondakinetan eman nahi da jauzirik handiena, 2014an frakzio gisa bildutako –zabor guztien– %10etik 2027ko %33ra iraganez; tonatan esanda, urteko 25.554 tonatik 81.440 tona biltzera pasatzea. Horretarako bi neurri giltzarri hartuko dira: batetik, organikoa frakzio gisa bilduko da Nafarroa osoan eta, bestetik, organikoa frakzio gisa biltzea derrigorrezkoa izango da. Mankomunitate bakoitzak erabaki beharko du horretarako zein bilketa sistema erabili, baina beti ere bermatuz %70 bilduko dela.

Errausketarik ez

Planaren gakoetakoa da guztiz baztertzeko delako errausketaren erabilera. Borradorearen lehen urratsetan erraustegia bera ezabatua zegoen, baina ez errausteta, adibidez zementu lantegietan egin ohi dena. Aurrera egin ahala, oster, aukera hori guztiz alboratu zen.

Alde horretatik, kontraste handia egiten du Bizkaia eta Gipuzkoarekin, bereziki azken honekin. Gipuzkoak 700.000 biztanle

» 2027rako hondakin guztien %75 berrerabili edo birziklatuko da –balorizatu– eta gainerako %25 zabortegietara bideratu, beti ere tratatua izan ondoren

» 2017a hondakinen foru legea prestatzeko urtea izango da, 2018an Legebiltzarrerara bideratuko da eta 2018 erdirako, edo beranduenez 2019ko urtarrilerako, indarrean izango da

ditu eta Nafarroak 640.000, Gipuzkoako Diputazioa erraustegia eraikitzea doa Zubietan eta Nafarroako Gobernuak baztertu egin du. Balorazio ugari egin daitezke hautu hauez, baina Gipuzkoan posible ez dena Nafarroan izateak asko esaten du batean eta bestean aldagetak diren apustu eta konpromisoez.

Tratamendua: gertutasuna giltzarri

Nafarroan mankomunitateak ardurtzen dira hondakinen bilketaz. Ondoren, bi entitate handi ardurtzen dira garraioaz eta tratamenduaz: Iruñerriko Mankomunitatea (Nafarroako herri-tarren %55) eta Nafarroako Hondakin Partzuergoa (gainerako 14 mankomunitateak). Hondakinen tratamendurako azpiegiturak bildutako tokitik zenbat eta gertuago egon, orduan eta eraginkorrago eta merkeagoa da kudeaketa.

Plana nagusiki gaur egungo azpiegiturretan oinarrituko da eta horretarako hauetako hainbat eginkizun berrietarako bermoldatuko dira. Azpiegitura berriak honakoak izan daitezke: bilketarako, transferentzia lantegi berri bat Berriozarren; berrerabilpenerako lantegi berri bat Berriozarren; eta birziklapenerako, lau konpostaje planta berri Zangotza, Doneztebe, Arbizu eta Iruñerrian.

NAFARROAKO HONDAKINEN PLANA 2017-2027

MANKOMUNITATEAK ETA AZPIEGITUREN KOKAPENA

- A Bilketa**
 - 1- Lizarra
 - 2- Tafalla
- B Bilketa eta birziklapena**
 - 3- Doneztebe
 - 4- Iruñea
 - 5- Zangotza
 - 6- Peralta-Azkoien
- C Bilketa, birziklapena eta ezabaketa**
 - 7- Arbizu
- D Berrerabilpenerako prestaketa**
 - 8- Saratsa
 - 9- Berriozar
- E Birziklapena eta ezabaketa**
 - 10- Gongora
 - 11- Cárcar
 - 12- El Culebrete
- F Ezabaketa**
 - 13- Dionisio Ruiz



Biztanleria: 632.948

Inbertsioa:

93,89 milioi euro (plana indarrean jartzea)

698 milioi euro (hondakinen kudeaketa 2017-2020an).

Kudeatzaileak:

Bilketa:

Nafarroako 15 mankomunitate eta Baztan.

Garraioa eta tratamendua:

- Iruñerriko Mankomunitatea (biztanleriaren %55).
- Nafarroako Hondakin Partzuergoa. (gainerako 14 mankomunitateak eta Baztango Udala, biztanleen %45.)

Prebentzioa:

2010-2027an hondakinen %10 murriztuko da.

Hondakinen Foru legea:

2018an indarrean.

Iturria: Nafarroako Gobernu.


Etxeko eta Merkataritzako hondakinak

	Gaikako bilketa	Gainerakoak	Tonak
2014	%38 (Organikoa %10 + materialak %28)	%62	262.202
2027	%67 (Organikoa %33 + materialak %35)	%33	252.500



Orain arte arreta berrerabilpenean, birziklatzean eta batez ere ezabaketan jarri da.

Aurrerantzean lehentasunak aldatu eta prebentzioan, berrerabilpenean eta birziklatzean jarriko da indarra, ezabaketa azken lerroa pasatuz.



PLANAREN KLABEAK



Ekonomia zirkularra. Bukatu da 'kontsumitu eta bota' garaia. Ekonomia zirkularrean dena baliatzen da eta ez da ezer botatzen. Europar Batasunak ere gero eta indar handiagoa egiten du ekonomia eredu honetan, zehazki hondakinei erreferentzia eginez.



Prebentzioa. Hondakin gutxiago sortzea esan nahi du. Gaur egun, indar gehiena hondakinen kudeaketan jartzen da; plan honek hondakinen gutxitzea ere aurreikusten du. 2010etik 2027ra %10 hondakin gutxiago sortzea aurreikusten da.



Errausketarik ez. Hondakinen inguruan munduan dagoen lehen mailako eztabaida da: erraustu ala ez? Plan honen borradoree-

tan errausketa kontuan hartzen zen (zementu lantegien bidez), baina ekonomia zirkularren irizpideei jarraiki eta partehartze prozesuan izandako adostasun maila oso handiarekin, errausketa ezabatu da.



Derrigortasuna. Hondakin organikoa frakzio bihurtzen da eta hala biltzea derrigorrezkoa izango da Nafarroa osoan (%70eko biltetara iritsi nahi da). Hori bermatzeko, mankomunitate bakoitzak ikusiko du zein bilteta sistema jarri indarrean.



Partehartzea. Hondakinen plana egiten hasi zenetik urte eta erdiko prozesua izan da herritarrek, elkarteek eta erakundeek bere gauzatzean parte har zezaten. 575 pertsonek

parte hartu dute, 65 toki-erakunde, 38 elkarte eta instituzio, 15 mankomunitate, 27 enpresa eta 40 norbanako ordezkatzuz. 2.300 ekarpen egin dira.



Fiskalitatea. Hondakinen foru lege bat egingo da, praktika onak sarituz eta txarrak zigortuz. Hau da, pizgarrien bidez prebentzioa, berrerrabiltzea eta birziklatzea sarituko dira, eta zabortegira bideratzea zigortuko da. Kanon bat jarriko da zabortegian ezabatzeari lotua.



Enplegu berdea. Planarekin 383 lanpostu sortuko dira. Europako Batzordeak egindako azterketen arabera, birziklatzeak 10 bider lanpostu gehiago sortzen du zabortegi edo erraustegi sistemak baino.



Plan berrian bio-hondakinak derrigorrez bilduko dira frakzio gisa. Ezkerreko argazkian, edukiontziak Ziordian. Eskuinekoan, Sanferminetako zaborra biltzen 2014an; aurten lehenbiziz sailkatua biltzeko aukera jarri zen.

(ARGAZKIA: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA)



Konposta dela eta bada eztabaidarik alor honetan ere. Gipuzkoako agintarien aldetik zalantzan jartzen da organikotik sortzen diren konpost kopuruei eman dakiekeen irtenbideaz. Nafarroako Gobernuako agintarien esanetan, gai hau ez da arazo izango Nafarroan bederen: azken finean, frakzio gisa biltzen den organikoaren kalitatea ona delako –B mailakoa gutxienez– eta konposta organiko guztiaren %10-15 besterik ez delako. Dena nekazaritza erabilerara bideratuko litzateke.

Finantzazioa eta fiskalitatea

Hondakinen Planean eta haren garapenean aurreikusitako neurriak eta ekintzak indarrean jartzeko 93,8 milioi euro beharko dira. 2017-2027ko hamarraldi osoan hondakinen prebentzio eta kudeaketaren aurrekontua 698 milioi eurokoa litzateke. Honen finantzaketa %18 pribatua litzateke eta %82 publikoa, Nafarroako Gobernuarena eta toki-erakundeena.

» Gipuzkoak 700.000 biztanle ditu eta Nafarroak 640.000, Gipuzkoako Diputazioa erraustegia eraikitzen doa Zubietan eta Nafarroako Gobernuak errausketa baztertu du

» Planak irauten duen 2017-2027ko hamarraldi osoan hondakinen prebentzio eta kudeaketaren aurrekontua 698 milioi eurokoa litzateke

Bada plan honetan giltzarri izango den beste osagai bat: fiskalitatea. Legez arautuko da tasen esparrua, baina funtsean, ongi egiten duenak tasa gutxiago ordainduko du eta gaizki egiten duenak gehiago. Ongi egitea da sailkatu, berrerrabili eta birziklatu; gaizki egitea da zabortegira bideratzea. Alde horretatik, zabortegian ezabatzen bideratutako hondakinei kanon bat ezarriko zaie, 2019tik aurrera jarri nahi da indarrean eta bildutako dirua praktika onak sustatzeko erabiliko da. Planean oraindik ez da zehazten nola funtzionatuko duen sistemak.

Planaren borradorea azken urratsetan da une honetan. Urriaren 26an alegazioak aurkezteko epea bukatuko da eta ondoren behin-betiko idazketa egingo da, Nafarroako Gobernuak onartu dezan. Azaroa aldera izango bide da hori. Ondoren, 2017a hondakinen foru legea prestatzeko urtea izango da, 2018an Legebiltzarrerara bideratuko da eta 2018 erdirako edo, beranduenez, 2019ko urtarilerako indarrean izango da. ■

Maria-Teresa Asplund

"FEMINISMOAK ERAKUTSI DU ESKUIN KONTSERBADOREA KALEAN GARAITU DAITEKEELA"



Igor Goikolea

@Igoikolea

ARGAZKIA: DAVID LAGERLÖF

Emakume beltz bat faxisten manifestazio aurrean tinko geratu zen, harro, ukabila gora eta begiradarekin hiru gizoni aurrez aurre desafio egiten. 2015eko Maiatzaren Lehena zen, ordu gutxi behar izan ziren bideoa eta argazkia biral egiteko. Ultraeskuindarrek, manifestazioa mozteagatik, Anders Breivikekin alderatu zutenean, "Bilatu Googlen Nelson Mandela" erantzun zien.



Maria-Teresa Asplund da, 42 urteko ekintzaile suediarra. Kolonbian jaio zen eta zazpi hilabete zituela herrialde eskandinaviarreko familia batek adoptatu zuen. Ultraeskuindarren aurkako ekintza ez zen ekimen isolatua izan. Ibilbide luzea du feminismoaren aldeko eta arrazismoaren aurkako borrokan.

Munduari buelta eman zion zure irudiak. Kontatuko diguzu zein girotan hazi izan zaren?

Oso gaztea nintzela hasi nintzen faxistak nire herrian ikusten, inpunitate osoz euren ideologia lau haizetara zabaltzen. Ultraeskuinaren gorakada, beraz, aspal-ditik sufritzen dugu hemen, ez da ezer berria. Beldurra nien hasieran, handia gainera, baina konturatu naiz ez nagoela bakarrik eta haiei aurre egiten hasteko gai ikusi dut nire burua. Haiek, baliteke gero eta gehiago izatea; gu, halaber, gero eta ahaldunduago gaude. Maiatzaren Lehenean egindako manifestazioa puntu gorena izan zen; noiz eta munduko langileok gure eskubideak harro aldarrikatu behar ditugun egunean.

Antolakunderen batean landu duzu borroka hau?

Ekintzailea naiz, ez naiz inongo antolakundeko kidea. Antolakunde ugaritako militanteekin harreman oso ona dudan arren, ez dut %100 hauen planteamenduekin bat egiten. Militantzia beste modu batean eramaten dut aurrera; hala ere, emakume gazteak antolatzen ikusteak ilusioa pizten dit oraindik ere.

Feminismoaren aldeko borroka arrazismoaren aurkako borroka gisa uler daiteke?

Bai, hala uste dut. Are gehiago, horrela ulertu behar dugu, ez dut beste aukerarik ikusten. Nire borroka, guztion giza eskubideak modu berean errespetatzeko borroka da.

Sistema heteropatriarkalean ez du axola jendeak gaizki tratatzen bazaitu, arrazagatik edo sexu-joeragatik diskriminatzen bazaitu... Suedian, adibidez, gizarateak normalizat jo du. "Gertatzen da", diote askok. Hori bai akatsa.

Arrazakeriaren aurkako borroka, matxismoaren kontrakoa, homofobiarekin bukatu nahi duena... borroka hauek bakarra eta bera dira. Herritar guztiok aukera berdinak izango ditugun mundu justuago baten aldeko borroka.

Europako hegoaldean, herrialde aurrerakoenak iparraldean daudela gogoratzen digute hedabideek eta alderdiek behin eta berriro. Suedia tartean da. Hezkuntzaz, osasunaz eta zerbitzu publikoen garapenaz hitz egiten da maiz. Zure ekintzak, aldiz, argi utzi zuen atzerakoa ere badela beste zentzu askotan.

Jarrera arrazistak eta faxistak gero eta normalizatuago daude, zalantzarik gabe. Suediako Demokratak alderdia parlamentuan sartu zenetik, are gehiago; gainera, antolatzen dituzten manifestazioen ondorioz goranzko joeran jarraitzen dute. Esaten duzun "gizar-te aurrerakoi" horren teoria Maiatzaren Lehenean erori zen, ekintzaren egunean. Egun hartan, naziek ez zuten inongo arazorik izan Borlänge (Suedia) erdia okupatzeko, poliziaren segurtasunarekin. Nazkagarria izan zen. Erradiografia ona: gure Konstituzioaren indar polizialek babesten dituzte, haien jarre-rek gure Konstituzioaren printzipioen aurka egiten duten bitartean. Eta hori, ziur nago, ez dela soilik Suedian gertatuko.

Mendebaldeko feminismoari askotan leporatu izan zaio borroka ugari bere gain hartu ez izana: arrazismoaren kontrako borroka, sexu langileen aldeko borroka... Mendebaldeko ekintzaile, feminista eta antiarrazista gisa, uste duzu hala dela?

Ez. Ez dut antolakunde batean militatzen eta ez naiz munduan barrena asko mugitzen, baina ezagutzen ditudan Suediako militante feminista guztiek borroka horiek bere egiten dituzte. Nik ere hala egiten dut. Sexu langileen %110aren babesa izan dugun moduan, haiek ere gurea dute, adibidez. Ezin dut Mendebaldeko emakume guztien ize-nean hitz egin, baina hori da nire egunerokotasunean topatzen dudana egoera.

Kurdistango emakumeek erakutsi dute egoera ezegonkorrenean ere feminismoa lehen lerroan jar daitekeen borroka izan daitekeela.

Nire errespetu eta babes handiena Kurdistango emakume guztientzat; Europako eta munduko emakume guztiontzako eredua izateaz gain, inspirazio iturri izan behar dira. Zalantzarik gabe, feminismoaren borroka oso indartsu errotzen ari dela eta benetako aldaketa politikoa etortzeke dagoela, baita Europan ere.

Adibidez?

Polonian azken egunetan gertatutakoa horren adibide garbia da. Eskuin muturreko Gobernuak atzera bota behar izan du abortuaren azkenengo proposamena. Ez da lege proposamen bat izan Gobernuaren neurri atzerakoi eta matxistak atzera bota dituen; emakumeek kalean egindako indar erakustaldi baten ondorio zuzena izan da. Feminismoak erakutsi du eskuin kontserbadorea kalean garaitu daitekeela. Kaleak berreskuratzeko garaia da.

Eta instituzioetan?

Suedian alderdi feminista bat sortu zen eta baliteke Parlamentuan sartzea. Hala ere, ez da nire eremua eta beste esparruetan jarraitu nahi dut lanean, han gertatzen dena kontuan hartuz, noski. ■

"Kurdistango emakumeek munduko emakume guztiontzako eredua eta inspirazio iturria izan behar dute"

"Emakume gazteak antolatzen ikusteak ilusioa pizten dit oraindik ere"

"Arrazakeriaren, matxismoaren eta homofobiaren aurkako borroka bakarra eta bera dira"

KOOPERAZIOA IKASGELARA ADIERAZMEN ETA SORKUNTZAZ

Ez da erronka makala balioak hezkuntzara eramatea. Are da zailagoa balio horiek, esparru gehienetan nagusi den indibidualtasuna eta lehiakortasunari kontra-jarriak badira. Kooperarock ekimenaren baitan, oraindik ez-ohikoa den bidea hartu dute kooperazioa eta elkartasuna 7 eta 12 urte bitarteko haurrekin lantzeko: sorkuntzaren eta artearen bidea. Egindako lana borobilduko duen antzerki obra datorren abenduan aurkeztuko dute.



Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

ARGAZKIAK: TEATRO PARAÍSO

Donostia 2016k, Mondragon Unibertsitateak, Lanki ikertegiak eta Teatro Paraíso antzerki konpainiak elkarlanean garatu duten proiektua da Kooperarock. Hauxe du funtsa: artearen bitartez, kooperatibagintza eta haren balioak eskolatan hedatzea. Teatro Paraísoko kideek bi bide jorratu dituzte horretarako: abenduan aurkeztuko duten antzezlan originala, eta Euskal Herriko hainbat txokotako bost eskolatan egin duten “bitartekaritza-artistiko” lana.

Ander Elorza komunikazio ardura-dunaren hitzetan, konpainia arabarrak 40 urteko ibilbide luzea du egina antzerkia eta hezkuntza artistikoa lotzen: “Antzezlanak sortzen ditugu, bai, baina publiko berrien sorrera, garapena eta formakuntza ere oso eginkizun garrantzitsua dira. Horretarako, lan handia egiten dugu ikastetxeetan”. Kooperarock proiektuari heltzeko ordea, aurrez zenbait hausnarketa egin eta formatzeko beharra izan dute. Lanki Ikertegiak izan du horren ardura. Hezkuntza eta ekonomia eraldatzailea jorratzen dituzten hainbat eragilerekin elkarlanean, prozesu luzea egin dute kooperatibagintzaren oinarritzko balioak identifikatzeko. Bertatik ateratako ondorioak ikastetxeetan

bitartekaritza lana egin dutenei eta antzerkiari forma emango diotenei transmititu dizkiete gero. Funtsean, bi ideia nagusitu dira: elkarlana eta elkartasuna.

Sorkuntzaren balio hezitzailea

Jakintza hori guztia ikastetxeetara eramateko ez dituzte testuliburuak, aurkezpenak edo etxeko lanak baliatu. Horren ordez, sorkuntzaren bideari heldu diote. Horretarako diziplina desberdinak jorratzen dituzten artistak izan dira Euskal Herriko bost ikastetxetan: Bilboko Kirikiñon, Gasteizko San Prudencion, Donostiako Amara Berrin, Arberuko Saint Martin-en eta Arrasateko Arizmendin. Haietako bakoitzean kooperatibagintzaren inguruko oinarritzko hausnarketa horiek bere diziplina-egokitu eta modu parte-hartzailean landu dituen artista bana izan da. Nork beretik, dantza, zirkoa, antzerkia eta argazkilaritza erabili dituzte.

María Fernández de Viana Kirikiñon eta Arizmendi Ikastolan izan da bitartekari lana egiten. Hainbat arlotako sormen prozesua hurrei gerturatuz, haien lan kooperatibo eta artistikoak inspiratu nahi izan ditu. Ohiko metodologiatik aldendu arren, ikasleen jarrera oso ona

izan dela dio: “Oso modu irekian hartu naute hasiera hasieratik. Gizakiok, berez dauzkagu adierazi eta sortzeko grina, eta haientzat propio sortutako espazio fisiko zein emozional bat eskaintzea zoragarria izan da”. Arte eszenikoak eta arte ederrak izan ditu oinarri. Dioenez, diziplina ezin hobeak dira kooperazioa lortzeko, hauek garatzeko elkarrekin “ezinbestekoa” baita.

Bitartekariak eskolatan irekitako bideak aurrera begira duen balioa garrantzitsua dela dio Elorzak. “Kooperatibagintzaren balioak hezkuntzara nola eraman hausnartzeko aukera eman digu. Baina aldi berean, sorkuntzaren bitartez ezagutza eta balioak transmititzeko aukera ikusarazi eta normalizatzeko pauso bat gehiago izan dira”.

Baita oholtzara ere

Ikastetxeetara bakarrik ez, oholtzara ere eramango dituzte kooperatibagintzaren balioak. Hori ahalbidetuko duen antzezlan finitzen ari dira orain, eskolatan hurrek egin dituzten ekarpenetatik eta Lankik bildutako gogoetetatik abiatuta. Elorzaren arabera, bi norantzatako prozesua da: “Artea eraikitzeke metodoa bera elkarlanean oinarritzen



da, eta halaber, sorkuntza lan horrek balio kooperatiboak hedatzen ditu”.

Maxi Rodríguez antzerkigileak hartu du gidoia osatzeko ardura. Beste lan askoren artean, *Siete vidas* teleaileko gidoilari izandakoa da. Hura buru dutela, Amaia Salazar, Maitane Goñi, Aitor de Kintana eta Ander Basaldua aktoreek gorpuztuko dute “poetikoa eta dinamikoa” izatea nahi duten antzezlanak. Ezer gutxi kontatu dute oraindik, baina Elorzak aurreratu digunez, arazo komunei aurre egiteko elkarlanean arituko diren lau lagun izango dira protagonista. Aurrez elkar ezagutzen ez duten arren, laster ikusiko dute haietako bakoitzak ezaugarri eta iritzi ezberdinak dituela. Elkarlanean aritzeko, aniztasun horretara egokitzen ikasi beharko dute.

Elorzak ez du uste enkarguzko lana izateak sormenerako aukerak mugatuko dituenik. “Egia da askotan enkar-guek arrisku hori dutela: artistak badu berez ideia eta izaera bat, eta beste bat ezartzen zaio. Baina esperientzia handiko profesionalak dira lan honetan daudenak, eta askatasun osoa eman diegu. Egin ditugu antzerako lan gehiago ere, eta emaitza ikusita, ez du ematen enkarguz egindakoak direnik”.

Goian eta alboan, bitartekariak Arberuko Saint-Martin eta Bilboko Kirikiño ikastetxeetan hurrenez hurren; kooperazioaren balioak artearen bidez lantzen dituzte haurrekin.



Hala ote den egiaztatu nahi duenak, antzezlanak ikustea izango du onena. Kooperarock du behin-behineko ize-na, eta 7-12 urte bitarteko haurrentzako izango da. Arizmendi ikastolak prozesuan izan duen garrantzi handia eskertzeko, abenduaren 15ean egingo dute aurrestreinaldia Arrasaten bertan. Estreinaldi ofiziala ordea, abenduaren 27an izango da, Donostian. ■

» **ANDER ELORZA (TEATRO PARAÍSO):**
“Artea eraikitzeko metodoa elkarlanean oinarritzen da, eta halaber, sorkuntza horrek balio kooperatiboak hedatzen ditu”

Urtero eltzekarien urtea



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Lekaleak edo lekaziak sukaldean sartu eta egoskari edo eltzekari bihurtzen ditugu; adibidez, babarruna (*Phaseolus vulgaris*). Lan ugari du babarrun ale batek sukalderainoko bidea osatzeko: aurreko urteko aleetatik gustuko duguna hautatu eta bereizi –guk “apartatu” esaten diogu–, toki egokian jaso, soroa landu eta pronto jarri, soroan erein, jorratu, arbatu, jorratu, lurreztatu, bildu, zabal-zabal jarri eta ondo lehortu, zakuan sartu eta astindu eder bat eman lekak askatzeko, irakurri edo aletu, ontzitik ontzira haizetan isuri lausoak eta xakarrak garbitzeko, eta beratzeko prest.

Garai batean lagun bera zen erein, soroan landuz zaindu eta gainontzeko lanak egin ondoren, uretan beratzen jarri eta hurrengo egunean eltzean egosten zuena. Gaur, berriz, gehien-gehienek ez dute ezta ezagutu ere egiten beratzen jartzen dituen babarrunak non eginda-koak diren. Nork zaindu ote dituen jakiteko moduan...

Badakiguna zera da, elikadura osasungarria moldatu nahi duenak eltzekariak ezin dituela ahaztu. Nazio Batuen Erakundeak aurtengo urte hau eltzekarien urtea izendatua du. Etorkizuneko elikagaiak direla diote, eta, okela ez bezala, iraunkortasunaren aiekatik eskueira daukagun aukerarik onenetakoa.



Makina bat gose baretu du indabak (*Phaseolus vulgaris*).

Aukera zabala dugu eltzerako. Babarruna izango da hedadurarik handiena duena, kanpotik ekarritako jaki fina: zuria, pintarra, gorria, beltza... Zenbaitek ez dute jan nahi izan “arratoiak ere jaten ez duen genero hori”; egia da, gordinik ez da jateko ona. Hala ere, behin egosiz gero jangarria da. Fin-fin prestatu eta laguntzaileekin –aza (*Brassica oleracea*) eta txerriki edo ardiki edo dena delakoarekin– edo gabe, makina bat gose baretu du. Gure

amona Joxepa zenak kiribildutako porru bati (*Allium porrum*) hari batekin perrexil sortatxo bat lotu eta besterik gabe egosten omen zuen babarruna. *Zea mays* edo arto artean heltzen zen babarrunik finenarentzako laguntzaile sotilak.

Babarrunaren uzta etxeratzeko saioi honetan, beste bi lekale ereiten hasi behar: hari izena eman ziona, bertako baba (*Vicia faba*), eta ilarra (*Pisum sativum*). Udaberrian mokoa txorroxteko! ■



Perretxiko zaindariak



Orain prezio berezia!

15€

Perretxiko bila joatea atsegin duzu?

Jolas honekin perretxiku biltzaile arduratsua eta bikaina bihurtuko zara

Eskaerak: ☎ 943 37 15 45 · denda@argia.eus · www.argia.eus/denda 

IDOIA TORREGARAI MARTIJA, "ALTZA PORRU"Z

"Umorea ere iraultza da, egunerokotasunaren golde"



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Jakoba Errekondo zure herrikidearen aurkezpena egitea egokitu zaizu *Altza Porru*. Ez al da ardura potoloa?

Bai, testu txikia baina ardura handia izan da. Nabaritu dut erantzukizunaren zama nire gainean, izerdi hotza. Izan ere, pertsona garrantzitsu baten aurkezpena da, motza eta umoretsua izan beharra zuen... Ardura izan da, bai, baina era berean ohorea eta erronka polit bat ere bai.

Jakoba "euskaldunon mesias" izendatu duzu. Zertan oinarritu zara baieztapen hori egiteko, baina?

(Barreak) Jakoba betidanik ezagutzen dut. Lehendabiziko aldiz elkarlanean 1990eko hamarkadan aritu ginen, *Noaia!* aldizkaria martxan jartzeko prozesuan. Orduan konturatu nintzen hitz egiteko moduan, proiektua ikusteko moduan, bazuela zerbait berezia. Besteok ikusten genuena baino urrutiago ikusten zuen, bestelako dohaina balu bezala. Orain ere, iraultza ikusi du baratzean, eta hor ere pauso bat aurrerago doala uste dut. Gainera, mesiasak jarraitzaileak ere baditu: ahalmena du jendea erakartzeko, berak dioena aintzat hartu eta bide hori berarekin batera egiten du jendeak. Horregatik erabili nuen aurkezpenean metafora hori.

Ba al du tokirik umoreak baratzean?

Jakobaren ustez baratzea iraultza da, iraultzarik handiena momentu honetan. Niretzat, umorea ere iraultza da, egunerokotasunaren eta gauza guztien golde. Ez dago umorez landu ezin den gairik. Alderantziz: umorea gai "serio" horietara ekarri beharra dagoela uste dut, eta *Altza Porru* horretan aitzindaria da.



Zertatik du gehiago liburuak, zure ustez, informaziotik ala umoretik?

Baratzeak eguzkitik eta euritik daukan bezalaxe, liburu honek bietatik duela uste dut. Umorearen bidez informazioa ematea lortzen du, eta jendeak informazioa modu atseginean jasotzen duenean askoz ere errazago gelditzen zaio buruan. Alde horretatik, produktu oso gozoa egin dute Errekondok eta proiektuan parte hartu duten artista guztiek.

Liburuaren egile bakoitza barazki bana-ekin irudikatu ditu Asiskoren karikaturak. Ze barazki zinateke zu?

Ez dut zalantzarik! Azenarioa (kar, kar). Gure etxean azenario hitza erabili izan da beti erotik, zentzugabekeriari daukan pertsona izendatzeko. "A ze *azanaiyua!*". Maitekiro esaten dugu, eta azenarioa oso erabilia den moduan estimatua ere bada. Gainera, nire burua azenarioaren kolore bizi horrekin, energiaren betea, islatuta ikusten dut: beti mila saltsetan sartuta... Bai, azenarioa naizela esango nuke. ■



ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marraskilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,
"mattin" Martiarena, Ainara Azpiaz,
Antton Olariaga, Zaldieroa,
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburuak

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuaren eskaerak:

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Urriak 21: Hondarribia

18:00etan, Endanea Garden Centerren
(Jaizubia auzoa 40).

Urriak 23: Bera

Lurraren Eguna Azokan.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

Ardatza aldizkariaren harpidetza

3

Elikadura burujabetza, EHNEko baserritarren lanaren Ardatza

Hiru hamarkadetako ibilbidea du *Ardatza* aldizkariak, 30 urtetik gora daramatza herri honek izan behar duen Elikadura Burujabetza lantzen, herrialde bakoitzak izan behar duen elikadura erabakitze eskubidea defendatzen. Hilabetero, baserritarren eguneroko lanarekin, ingurumenaren zaintzarekin, gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekin, zein elikagaien ekoizpenarekin eta bertako produktuen kontsumo arduratsuekin loturiko hamaika gai jorratzen ditu *Ardatzak*. EHNE sindikatuak baserritarrek eta gizartearekin orohar informazioa zabaltzeko

duen bidea da *Ardatza*, aldizkariaren bitartez baserria eta lehen sektoreari buruzko berriak jaso daitezke modu garbi, landu eta zuzen batean. *Ardatza* da sektorearen oinarriak ezagutzeko gakoa. Ekoizten ditugun produktuen freskotasuna, gertutasuna eta konfiantza da aldizkariak eskaintzen duena. Baserrietatik herrira, hirira eta mundura.

ARGIAko txoko honen bitartez, irakurleoi aldizkariaren urtebeteko lau harpidetzaren zozketan parte hartzeko aukera eskaini nahi dizuegu. ARGIArekin batera egin lekua *Ardatzari*.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



ARDATZA ALDIZKARIA
EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNA

Simon Bolivar Plaza, 14 · 01003 Gasteiz
ardatza@ehne.eus · 945 27 54 77

#elikaduraburujabetza
#nekazaritza
#abeltza
#kontsumo_arduratsua
#baserritarrak

Hilabeteko honetako sariak

1



Arizmendi Ikastolaren
Konfiantzaren Pedagogia liburuak
4 liburu

2



Bilgune Feministak argitaratutako
Izena eta izana ezbaian
4 gida

3



EHNEk argitaratutako
Ardatza aldizkaria
4 harpidetza

4



Euskararen Memoria Fundazioaren
Euskararen kate hautsiak
2 liburu

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



1980an Donostiako Balda pilotalekuan euskal sukaldari ezagunenek ARGIAren alde emandako 1.000 bazkarien irudia. Ondoan, Argia Egunean herrietan kalera ateratzen ziren mahaietako bat.

KRISTO AURREKO ARGIAREN KANPAINAK

Argia Eguna pelikularen aurreko urteak



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Hollywooden pare jarriko gara gaur. Orain modan daude arrakasta izan duten pelikulen aurreko atalak; seguru zuk ere ezagutzen duzula baten bat, irakurle: *Eratzunen Jauna* trilogia osoa pantailan ikusi ondoren kaleratu zuten *Hobbit*, edo dagoeneko iragarri duten *Izarretako Gerra* pelikula-sailaren aurreko parte. Bada gaurko ARGIAk ere badu bere aurreko parte, eta Kristo Ondorengo III. Argia Eguna oraintxe ospatu dugula aprobetxatuta, Kristo Aurreko urte haiek erreparatuko ditugu.

1977ra egingo dugu salto. Frankismo ostean, ia erabat gazteleraz aritzen ziren aldizkari eta egunkari abertzaleen sorrerak euskarazko aldizkariak kolpatu zituen, eta tartean zen orduko *Zeruko Argia* ere, *Anaitasunarekin*, *Herriarekin* edo *Jakinekin* batera. Orduko borroka euskarazko prentsa bultzatzea zen, eta bide horretatik sortu zen 1980an *Prentsa euskaraz!* kanpaina, aipatutako aldizkari horiek eginga. Baina borroka kolektibo horrez gain, bakoitzak ere bazuen berearekin nahiko lan. *Anaitasuna*, esaterako, estuasun ekonomikoa medio 1983an desagertu zen. Eta garai hartantxe langileen esku geratu eta ARGIA bi-

lakatua zenak lana gogotik egin beharko zuen aurrera ateratzeko.

1.000 bazkari

ARGIA proiektua herritarrengana gerturatu eta ezagutzera ematearen ideia ez da atzo asmatutakoa, eta orain egiten diren Argia Egunen helburu bera zuten 1980ko hamarkadako kanpainen. Hortik doa 1.000 bazkariarena ere. Euskal gastronomia berrian murgilduta zebiltzan Arzak edo Argiñano bezalako sukaldariek prestatutako 1.000 bazkari eman zituzten 1981ean Donostiako Balda pilotalekuan, ordurako aldizkariaren erreleboa hartua zuten Joxemi Zumalabek, Eliaxabe Garmendiak, Joxe Mari Ostolazak, Josu Landak eta konpainiak bultzatuta.

Eta ziurrenik egun haren balorazio ezberdinak egongo diren arren, proiektua kalera ateratzeko balio izan zuen; eta horrek hauspotuta akaso, 1982an ospatu zen lehen aldiz Argia Eguna. Ez zen gaur bezala herri batean zentratzen, baizik eta mahaia jarri ziren Euskal Herriko hainbat puntutan, ARGIA zabaltzeko eta harpidetzak lortzeko. Hamar urtez ospatu zen Argia Eguna, eta 300 mahaitik gora jartzera iritsi ziren 1987an. ■



Badator 20. urteurrena

Asier Iturralde

@aldatsa

@argia ere 1997tik sarean. Pantaila-argazkia beranduxeagokoa, 1999koa.



ARGIA jai egun espainiar eta frantsesak ez dira jai

Uztailaren 14a (Frantziako Egun Nazionala), Urriaren 12a (Espainiako Egun Nazionala), eta abenduaren 6a (Espainiako Konstituzioaren Eguna) lan egun dira ARGIAren. Abenduaren 3a, Euskararen Eguna, da gure jai ofiziala. Langile bakoitzak erabakitzen du Espainiako eta Frantziako jai-egun horien ordeztu, urtean zehar beste zein egunetan ez lanik egin.

DRAPETOMANIA, IHESAREN GAITZA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazuastabarrena

New Orleans (AEB), 1851. Samuel A. Cartwright medikuak idatzitako *Diseases and Peculiarities of the Negro Race* (Arraza beltzaren gaixotasunak eta berezitasunak) artikulua argitaratu zen *New Orleans Medical and Surgical Journal* aldizkarian. Bertan, berak izendatutako gaixotasun baten berri jaso zuen: drapetomania edo gatibutzatik ihes egiteko gogo. Ustezko gaitza esklabo beltzen artean oso zabalduta zegoela zioen, eta prebenitu eta sendatzeko aholkuak ematen zituen.

Batetik, ondo trebatutako sendagilea zen Cartwright. John Brewer doktorearen aprendiz gisa hasi zen lanbidea ikasten. Ondoren Filadelfiako Benjamin Rush medikuaren apopilo izan zen eta, azkenik, Pennsylvaniako Unibertsitateko Medikuntza Eskolan osatu zituen ikasketak. Gerora AEBetako presidente izango zen Andrew Jacksonen zirujau ere aritu zen. Bestetik, konfederatu porrokatua zen; beltzak zuriak baino gutxiago zirela uste zuen eta hori zientifikoki frogatzen ahalegindu zen, abolizionisten aurka egiteko.

“Gizon zuria”, zioen artikuluan, “Jainkoaren borondatearen aurka, menpeko beltza bere mailara jasotzen saiatzen bada, edo Jainkoak beste gizakiarengan eman dion botereaz abusatzen badu [...] beltzak ihes egingo du; baina jabeak esklaboa Bibliak esaten digun tokian atxikitzen badu, hau da, mendekotasunean;



ATLANTA BLACK STAR

Esklaboak kotoia biltzen. Samuel A. Cartwrightek (1793-1863) gaixotasuntzat jo zuen esklaboek ihes egiteko eta aske izateko zeukaten grina, eta drapetomania deitu zion ustezko eritasunari.

eta jabea bihozbera eta errukitsua bada, haren nahietara egokitu gabe, eta haren behar fisikoak ase eta gehiegikerietatik babesten badu, beltza liluratuta geratzen da eta ezin du ihes egin”.

Beraz, errua ez zien esklaboei egozten, haiei “tratu xumeegia ematen dieten eta berdintzat dituzten” jabeek baizik. “Haurrak bailiran jokatu behar da haiekin, iheserako grina prebenitzeko eta sendatzeko”. Esklaboren baten ihesa hurbil sumatuz gero, “barruko deabrua zigorradez ateratzeko” gomendatzen zuen “prebentzio neurri” gisa. Baina batzuetan

prebentzioa ez zen nahikoa, eta behatz lodien anputazioa gomendatzen zuen kasu larrietan, esklaboa lasterka ihes egiteko gai izan ez zedin.

Esklaboen “alferkeria” ere patologia mentaltzat zuen Cartwrightek, eta izena jarri zion: *Dysaesthesia aethiopica*.

AEBetako hegoaldeko estatuetan zabal-kunde handia izan arren, iparraldean barreragari utzi zituzten haren teoriak. Frederick Law Olmsted arkitektoak 1856an idatzi zuen langile zuriek ere iheserako joera zutela eta gaitza ziurrenik europar merkatariek eraman zutela Afrikara. ■



CLEVELAND CLINIC

Izen okerreko odolbideak

Gorpuetan, arteriak hutsik egon ohi dira. Horregatik, Antzinako Grezian, Praxagorasen garaiko (K.a. IV. mendeko) medikuek ez zuten uste handik odolak zirkulatzen zuenik, aireak baizik. Horregatik *artheria* izena eman zieten (“aire-hodia” esan nahi du).

Galenoren (K.o. 129-199) garaitik oker zeudela eta arterietatik odolak zir-

kulatzen duela jakin arren, odol-hodi horiei ez zitzaien izena aldatu.

Eta jatorrizko esanahiari eustez gain “arteria” hitza bestelako bideak ere izendatzeko erabiltzen da gaur egun. XIX. mendearen hasieran ibaien sareak izendatzeko erabiltzen hasi zen eta, aurrerago, trenbideak eta errepideak izendatzeko ere bai. ■



Rebeca
Lane

“HIP-HOP-A ITXAROPENARI EUSTEKO BIDEA DA GERRAK ETA MISERIA GOGORRAK BIZI IZAN DITUGUNONTZAT”



Iker Barandiaran

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Rebeca Lane Guatemalako poeta, anarkista eta rapera da. Bere burua artibistatzat –arte eta aktibismoa batzen dituenak– eta Erdialdeko amerikartzat du. Bere idatzi eta kantuetan zein egunerokoan diktadura salatu eta emakumeen alde irmo egiten du. Donostia 2016k gonbidatuta Euskal Herrira etorri da eta han eta hemen tailerrak zein kontzertuak egiten dihardu. Hip-hopa egiten badu ere, AEBetako patroitik asko aldentzen da eta Erdialdeko Amerikako afroan sakontzen du: reggae, cumbian, karibearrean...

Noiz eta nola hasi zinen aktibismoan?

80ko hamarkadan jaio nintzen, Gerra Zibilaren erdian. Nire izebatako bat, ezkerreko mugimendu politiko bateko kide zena, 1981ean bahitu eta desagertarazi zuten. Hirian hazi nintzen, gerra urrun bizi nuen ingurune seguruan, baina izebaren galera eta hutsune horren mina bizi nuen. Horregatik, 15 urterekin, zauriak sendatzeko eta memoria historikoaren alde lana egiteko beste pertsona batzuekin batu eta diktaduran gertatutakoa ezagutzera ematen hasi ginen. Anarkismoaren ildotik jo genuen. Eta jada 2008an, 28 urterekin, rap abesten hasi nintzen.

Zaila –edo are zailagoa– al da Guatemala emakume izatea?

Askoz zailagoa da. Kolonia izan zenetik Guatemala gerratan murgilduta egon da etengabe. Eta indarkeria gehien sufritu dugunak emakumeak gara. Hain zuzen ere, bortxaketa gerratan erabilitako ohiko erreminta izan da. Guatemalak munduko feminizidio tasa altuenetakoa du. Urtero 700 bat emakume erailtzen dituzte eta kopurua handituz doa. Guatemalan bizi dugun beste gaitz larri bat nerabeen artean ematen diren haurdunaldi ugariak dira; are gehiago, haurrak erditzera behartzen dituzte. Horietako asko familien hurbileko gizonak bortxatu dituzte eta beste batzuk senitartekoez. Guatemalan emakumeak ez gara libre ordu jakin batzuetan eta leku batzuetan bakarrik ibiltzeko. Gainera, ezin dugu edozein arropa jantzi, kalean gizon askok eskuztatu gaitzaketelako. Kontatzen ari naizen hau guztia Guatemala osoan ematen da, orokortua da, baita hirietan ere.

Eta nolakoa da zure egunerokoa, feminista aktibista izanda?

Ingurune seguruan bizi naiz eta horregatik zorte handia dut. Gainera, biztanleriaren %2k bakarrik sarbidea duen unibertsitate publikoan ikasteko aukera izan dut. Pertsona pribilegiatua naiz Guatemalan. Eta, jakina, kalean zein rap giroan kide eta lagunez inguratzen naiz.

Zer da gaur egun tabua Guatemalako gizartean?

Gizarte erlijiozale eta kontserbadorea da, eta Estatua Elizara estuki lotua dago. Pentsa, nerabeen artean ematen den haurdunaldi kopurua itzela bada ere,

ez dute eskolatan sexualitateari buruzko hezkuntza ematea baimendu nahi. Eta, era berean, bortxaketa ugari eman arren, inork ez du abortatzeko eskubiderik. Orain gutxi Kongresuan lehen diputatu lesbiana feminista dugu, emakumeen aldeko ekintzak bultzatzen hasi dena, baina haren alderdi bereko kideek esaten dute ez dituela emakumeak ordezkatzen, lesbiana delako. Bizi dugun beste tabu handi bat kargu politikoen sexu aniztasuna da. Gizonak, esaterako, ez dira hori aitortzen ausartzen eta kontrako *matxo* jarrera erasokorra antzezten dute.

Orain urte gutxi arte uste genuen Europa eskubide eta lorpenen lurra zela, baina ez da horrela. Zer ikasi dezakegu Latinoamerikako borroketatik?

Latinoamerikan beti egon da baliabide-ekasiala, poliziaren errepresioa, ustelkeria, eskubideen ukazioa... Eta Europan ere betidanik egon da, baina batez ere migratzaileek eta koloreko pertsonen sufritu dute. Orain, berriz, erdi milako klaseetara ere heldu da, eta hauek oihartzun gehiago eragin dezaketenez, askoz ikusgarriagoa da. Luzaroan Europako zuriak ezizusia egin diete koloreko pertsonen borrokei. Eta, orain, horietako borroka asko partekatzen dituztenean, hobe dute elkartasuna indartzea. Latinoamerikan ere oso zaila da nekazal giroko indigenak diren eta bestelakoan artean harremanak sustatzea. Neoliberalismoaren aberastasun-gosea ase ezina da; hortaz hobe dugu beste guztiok lehenbailehen bat egitea.

Nolakoa da Somos Guerreras ekimena?

Artea emakumeen ahalduztetik ulertzeko proiektua da, orain dela 3 urte sortu nuena. Agertokira igotzeko zein egunerokoan aukera gehiago izatea ahalbideratu nahi du. Inposatu zaizkigun lekuetatik irten eta kolektibo gisa espresatzen lagunduko diguten alternatibak sortzea da gakoa. Erdialdeko Amerikako eta Mexikoko hip-hop emakumeen ekimenak dira ardatz: hezkuntza prozesuak, gune propioak eztabaidarako, sendatzeko eta ekitaldien ekoizpenerako guneak. Hip-hop kulturaren baitan gizon eta emakumeen artean desabantaila itzelak daude, baita hemen ere. Horregatik trebatu eta emakumeen ikuskizunak antolatzen ditugu. Ez gara gizonak gu noiz deitu zain egongo. Aur-

“Feminismoa liburuetatik atera behar dugu eta gorputzean jarri, egunerokotasunera eramanez, gorputzera, arimara”

“Herri indigenek eta Latinoamerikak feminismoari bestelako ekarpenak egiten dizkiete; herrien mundu-ikuskerak, Mendebaldekoarekin alderatuta kolektiboagoak diren ikuspegiak”

“Neoliberalismoaren aberastasun-gosea ase ezina da; hortaz hobe dugu zuri, kolorezko pertsona eta beste guztiok lehenbailehen bat egitea”

ten 4 raperak 8 hirietan barrena bira egin dugu, Panaman hasita Ciudad Juarezera, bidean tailerrak, kontzertuak... egin ditugu eta dokumental bat grabatu dugu, une honetan finantzazio faltan gelditu duguna.

Zer dela-eta aukeratu zenuen hip-hopa?

Aspalditik nirekin bat datorren kultura da. Erdialdeko Amerikan benetako gertaeretatik eta gazteengandik oso hurbil egon dena. Gerrak, miseria eta indarkeria egoera hain gogorrek bizi izan ditugunontzat hip-hopa itxaropenari eusteko bidea da. Ikasketak izan ez arren, dantza egin, margotu, abestu... dezakegu eta gutaz hitz egiterakoan hedabideek ezkututzen dutena azalerazi. Ni rap-era poesiaren bitartez heldu nintzen. Rapa egunerokotasunaren poesia da, kalekoa, gazteriarena. Guatemalan liburu bat argitaratzea elitista da; ez da batere erraza eta gainera analfabetismo handia



dago. Ez dago irakurzaletasunarekin lotutako kulturarik. Horregatik, musikak ahozko komunikazioaren bitartez transmititzeko aukera ematen digu.

Zein da feminismoaren erronka nagusia?

Munduan onartua eta balioztatua izan den feminismoak Mendebaldeko ikuspegia du. Eta hori oso ikuspegi teorikoa da. Herri indigenek eta Latinoameri-

kak feminismoari bestelako ekarpenak egiten dizkiete; horren baitan daude, herrien kosmobisioa, kolektiboagoak diren ikuspegiak, hain indibidualistak ez direnak. Mendebaldeko ikuspegitik lasai asko esan daiteke “emakume independentea izan behar naiz, unibertsitatara joango naiz”. Guk, ordea, kolektibotasunari erreparatu eta emakume batzuek unibertsitatara joateko eskubi-

dea ez badute, borrokan jarraitzea erabakitzen dugu. Alemanian, esaterako, ezustea hartu nuen: han feminismoa eskubide kontutzat dute. Han ez dute ulertzen guk bezala; emakumeen arteko, naturarekiko eta espiritueltasunarekin lotutako harreman gisa. Feminismoa liburutetatik atera behar dugu eta gorputzean jarri, egunerokotasunera eramanez, gorputzera, arimara. ■

**Kalitatea da
gure produktuen
ezaugarri nagusia!**



**BISITA EZAZU
GURE DENDA**

Industrialdea B 7-8 partzela

**ABLITAS · Nafarroa
KOSTAPREZIOAN**



conservas artesanas
maría Jesús



www.conservasartesanas.com

BAZTERRETA KO DANTZARIAK: “EUSKAL DANTZA TRADIZIONALEAN LEKURIK EZ DUTEN IDENTITATEAK TAULARATU NAHI DITUGU”

Genero rol markatuak, erlijioaren pisua, ia zalantzan jarri ezin diren sinboloak. Euskal dantza tradizionalen zurruntasuna beren haragitan bizitakoak dira Kepa Blazquez Roteta eta Ibai Fresnedo. Bizipen bertsuak izan dituztenak elkartuta sortu dute Bazterretako Dantzariak taldea. Transfeminismotik pitzatu nahi dute zurruntasun hori. Gustatzen zaien hori eginez: dantzatzuz.



Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

ARGAZKIA: BAZTERRETA KO DANTZARIAK

Leku eta ibilbide desberdinetako pertsonak elkartu zarete. Zerk batu ditu Bazterretako Dantzariak?

Ibai Fresnedo: Han eta hemen ikusitako espektakulu batzuk iradokita hasi nintzen euskal dantzetan egin duan ibilbidea errepasatzen. Berehala etorri zitzaizkidan burura genero rol markatuak, estetikaren aitzakian jasandako diskriminazioa... Horren harira iritzi artikulua idatzi nuen *Topatun*, eta berehala idatzi zidan Kepa Blazquezek berak ere bizipen antzekoak izan zituela esanez. Orduantxe hasi ginen honi forma ematen, eta jende gehiago batu zaigu pixkanaka.

Eta zein da hartzen ari den forma? Dantza talde bat izango da? Kolektibo bat?

I. Fresnedo: Dantza taldea. Gure proiektua ez dago ikerketa antropologiko edo etnografikoetan oinarrituta. Nahiz eta akademiaren lana eta fruituak aintzat hartu eta balioa eman, gu ez gara akademiaren parte, eta ez dugu akademiaren oniritzirik behar. Badirudi adituen ikuspegitik sortu behar direla proiektuak beti, baina gu arituak besterik ez gara,


eta gure bizipenetatik abiatuta eraiki nahi dugu hau.

Kepa Blazquez: Dantzaren inguruan hitz eginez baino, dantzatzuz nahi ditugu taularatu gure ondorioak. Ikuskizunaren hezurdura badugu jada, eta orain hasiko gara forma zehatzagoa ematen.

Zuotako batzuek ez zenuten aurrez elkar ezagutzen. Zerk eman dizue talde izaera?

I. Fresnedo: Hasi ginen aztertzen guztion bizipenak eta konturatu ginen arazo guztien erroan heteropatriarkatua dagoela. Arazoa estrukturala den heinean, gure bizipenak ere oso antzekoak dira. Bakoitzak bere txoko eta gorputzetik, munstro berekin egin dugu topo. Entseguetan, kalejiran dantzatzean, ikuskizunetan... Antzerako diskriminazioa pairatu dugu denok.

K. Blazquez: Euskal dantzetan gaur egun dagoen iruditeriak, jantziek eta abarrek hegemonikoa dena ordezkatzeko dute. Guk tokirik ez duena ikusarazi nahi dugu, bazterretan dauden identitateei lekua egin: marrikak, bolle-rak, kanpotik etorritakoak, lodiak, elbarriak...



Bazterretako Dantzariak taldeko kideek transfeminismotik pitzatu nahi dute euskal dantza tradizionalen zurruntasuna.

Zuen bizipenetatik abiatu arren, zabala goa den arazo edo errealitate bat salatze-ko ere balioko du, beraz.

I. Fresnedo: Gure esperientzietatik abiatu gara, jakinda ez ditugula zapaldu guztiak ordezkatzeko, baina gure irakurketak sistema oso batek nola funtzionatzeko duen erakusten du. Pertsonala politikoa da eta guk, guretik, euskal dantzen dimentsioan eta honen iruditerian modu erradikalean eragin nahi dugu.

K. Blazquez: Poztekoa litzateke herri guztietako dantza taldeek gure hausnarketak kontuan hartu eta haien jarduna zalantzan jartzea, baina badakigu hori oso zaila dela. Beste kontu bat da ikuskizunak piztuko diola zenbait halako kontzientzia bat, edo gogoraraziko dizkiola dantza munduan izan dituen bizipenak... Horrek izango du bere eragina.

Zein neurritan da atzerakoia eta zurruna euskal dantza tradizionala? Beste diziplina batzuekin alderatuta atzean geratu da?

I. Fresnedo: Literaturan, musikan, ber-tsotan... Aldaketa egon da, feminismitik edo beste ikuspegi batzuetatik etorri dena, baina gertatu da. Euskal dantze-



tan dauden dinosauroak oraindik hori daude, elite bat da, pisu handia duena, eta horrek aldaketa hori frenatzen du. Euskal dantza tradizionala naziotasunarekin eta herri proiektu zaharkitu batekin lotua dago, eta oraindik indar asko duen mundu sinbolikoarekin. Oso zaila da hori aldatzea.

Erresistentzia asko daude, beraz.

I. Fresnedo: Dantza asko bere horretan dantzatzeko ditugu gaur egun. Gizarte ustez aurrerakoi eta garatu batean bizi gara, baina orain ehun urteko dantzak errepresentatzen jarraitzen dugu, gizartean egon den garapena islatu gabe. Hori ez zaio tokia egin behar? Dantza ez da gizartera egokitu behar? Guk bide hori landu nahi dugu, dantza erabili gure egungo kezkak isaltzeko. Baina jende askorentzat esentzia aldatzea arriskutsua da, tradizioa zalantzan jartzen delako.

K. Blazquez: Gainera, esaten dugunean, orain dela ehun edo berrehun urteko errealitatea erakusten dutela, ez da guztiz egia. Orduan ere egongo ziren marrikak edo bollerak, noski, baina ezin zuten plazaren erdian egon. Gaur egunera

ekartzen duguna garai hartan hegemonikoa zena da.

Genero rolen kasura joanda, oraindik ere zalaparta sortzen dute batzuek emakumeek dantza jakin batzuetan parte hartzen dutenean.

K. Blazquez: Horrekin dezente eztabaida izan dugu. Poztekoa da aludunek zakildunei mugatutako dantzetan tokia dutela ikustea, baina ezin gara horretan gelditu. Adibidez, zergatik ez daude emakume rola hartzen duten zakildunak? Hori gizonen borroka da, baina orain arte ez dugu egin. Guretzat berdintasuna ez da emakumeak gizonetakoak zeuden tokian jartzea bakarrik, askoz harago joan behar gara. Urrats sendo bat da, bai, baina ez du balio behar beste guztia estaltzeko. Dantza bera ere jarri behar da zalantzan. Baliteke emakumeek ere parte hartzea, baina jatorri militarreko dantza izatea, esaterako.

I. Fresnedo: Bai, euskal dantza tradizionalek islatzen duten horretan inkomodatzen gaituen gauza bakarra ez dira genero rola. Gorputz normatiboak eta eredu estetiko jakin batzuk bilatzen

dira, euskal identitatearen ikuspuntu *sabinista* dute askok, erlijioak ere toki nabarmena du, eta bada desberdintasun sozialen errepresentazioa ere...

Dantza mota asko daude euskal dantzen artean. Izango da baten bat elementu horiek horren presente ez dituen...

I. Fresnedo: Plazan egiten direnak, *Jauziak* adibidez. Horiek askeagoak dira, eta egia da genero rola kasu gehienetan ez daudela hain markatuak. Dena dela oso ezberdina da plazan egin, edo eszenatokian. Plazan dena da irekiagoa.

K. Blazquez: Sorgin dantzaren kasuan, adibidez, mutilak gonarekin janzten dira. Baina halako iseka edo ridikulizazio bat ere badago, ez dut uste adibide aproposa denik.

Egon badaude euskal dantza tradizioaletik abiatuta, lan garaikideagoak egin dituztenak, Kukai dantza taldea, adibidez.

I. Fresnedo: Gero eta talde garaikide gehiago dago, bai, baina ez dute intentsio politiko garbirik. Alde estetikoan egia da bide bat urratzen ari direla, baina alde estetikoan geratzen dira. Guri fokua aldarrikapenean edo salaketan jartzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

K. Blazquez: Sartzen dira elementu berri eta interesgarriak. Adibidez, bi gizonetako dantzatzeko dute polka, edo gona jantzi. Baina horri begiratzeko bi modu daude: bata da esatea, "eh!, begira zer egin daitekeen" eta bestea da salatzea orain arte ez digutela horrelakorik egiten utzi. Zuritu edo salatu, bi fokatzeko oso desberdin direla uste dut.

Eta hemendik aurrera zer? Noiz ikusiko dugu hau guztia taula gainean?

K. Blazquez: Hasi berri gaude, eta ikusizuna taularatu aurretik oraindik beste bi urte beharko ditugu agian. Behin sormen lana hasita, dena zailtzen da, eta baita edurtu ere. Bestearen bizipenak entzun, horrek zuri mugitzen dizuna adierazi... Prozesuak du balioa eta gutako bakoitzarentzat oso askatzailea ari da izaten.

I. Fresnedo: Oraindik lana gelditzen zaigu bai, baina bitartean hitzaldiak, tailerrak eta antzekoak ere egingo ditugu. Taldea irekia dago oraindik. Dantzariak behar ditugu, baina baita ere musikariak, jantziak egiten dituztenak... Nahi duena garaiz dago oraindik gurekin hairemanetan jartzeko. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Haien, zuen, gure trintxeratik



Amaia Alvarez Uribe



Erleak, satorrak, beleak

GAIZKA SARASOLA

EDO! Argitaletxea, 2016

Gaizka Sarasolaren hiru antzezlan ekarri dizkigu EDO! Argitaletxeak, *Erleak, satorrak eta beleak* izenburuaren bidez bateratu eta soildu dituenak: *Urak ttiki dire*, *Lur azpikoak* eta *Talaka*. Lehena eta hirugarrena 2013an eta 2015ean taularatu zituzten eta bigarrena 2013an Cafe Bilbao lehiaketan saritu zuten.

Egungo euskal antzerkiko hiru puntu G biltzen ditu edizio honek: Gaizka Sarasola egilea, Galder Perezen hitzaurrea, eta Oier Guilanen hitzostea; hauekin, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa, komedia eta drama, absurdoa eta politikoa, edota tradizioa eta modernitatea uztartuz.

Euskal kulturatik edaten du egileak kantutegitik edo nekazal girotik hartutako elementuak erabiltzean, baina baita antzerki esperimental, konprometitu eta abangoardistatik ere, *Godoten esperoan* dauden bi pertsonaiak, lur azpiko zomorroen traza duten pertsonaien solasaldiko kritika soziala, edo egiak oihukatzen dituen kateaz lotutako zoroa kasu.

Askorentzat gaurko antzerkiaren funtzioa ikus-entzuleen barrualdea mugiaraztea da, emozioak eragitea, kontzientziak iratzartzea. Lan hauetan hori topatuko dugu. Egunkarietako berriak irakurtzean edo telebistako albistegiak ikustean ipintzen dugun distantziarako abagunerik ez digu emango Sarasolak. Krisia, gerra, heriotza ekarriko dizkigu eta gordin zerbitzatuko taula gainean. Zerurik gabeko bizitzak agertuko zaizkigu, lurrari oso lotuak, eta erdi ilunpean denak. Basoan, taberna-zuloan, soro hits batean.

Urak ttiki dire lanean Ilargi eta Willi aurkituko ditugu basoko bide bazterrean. Etsipe-

na eta itxaropenaren arteko dantza izango da denborak aurrera egin ahala, eta iraganaren pisuak etorkizuna baldintzatuko du aldaketa posible den zalantzan jarritz.

Lur azpikoak lanean berriz, Martin, Pedro, Luciano eta Lucas meatzari jubilatutako taberna huts batean elkartuko dira erdi ilunpean musean jokatzeko. Meatzarien borroka eta istripuak krisi sozio-ekonomikoarekin harilkatuko dituzte berbetan, eta Kafkaren metamorfosiari ere erreferentzia egingo diote.

Talakan azkenik, "pertsonaia" izango dugu agertokian bakarrik. Kate batekin talaka bati lotuta dago eta (irratiko) ahots batek Hegoafrikan poliziak hildako meatzarien berri emango digu. Edgar Allan Poe eta Alfred Hitchcock aipatuko ditu pertsonaiak sorotik uxatu behar dituen beleen harira. Era berean, lana eta esklabotza parekatuko ditu egungo neoliberalismoa erdigunean ipiniz. Langileriaren baldintza kaskarrak, alienazioa eta klase borrokarako deia azalduko dira. Zu edo ni izan daitekeen pertsonaiaren hitzetan: "Edonon daude trintxerak. Jende guzia da trintxeretan sartua. Mundua guda zelai bat da!". ■

Gaizka Sarasola, erdian, liburuaren aurkezpenean.



» **TELEGRAMA**

Urriaren 21ean, 19:30etan, Iruñeko Katakarak-eko irakurle taldeak **Idea Vilariñoren** *Poesía completa* irakurtzera gonbidatzen zaitu **STOP** Urriaren 22an **Xilaba Bertsulari Xapelketaren hirugarren finalaurrekoa** Aiziritze-Gamue-Zohaztin, Herriko Gelan; 17:00etan **STOP** Urriaren 24an Donostiako Liburutegi Nagusian (Haur sailean), Liburutegiaren eguna kari, *Kontuz kantu* ipuin kontaketa izanen da, **Amaia Nekane** eskainia akordeoiaren laguntzarekin; 18:00etan **STOP** Gasteizko Oihaneder Kafe Antzokian, urriaren 26an *Mairuelegorreta: iluntasunetik argitasunera* ikuskizuna eskainiko dute 19:00etan; **Mikel Ezkerro** zuzendaria mintzatuko da bere lanaz **STOP**

» **KONTZERTUA**

Zapore ona



Montse Auzmendi

Sarasa, Hosokawa eta Orff EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA DONOSTIAKO ORFEOIA

Zuzendariak: Jun Märkl / J. A. Sainz Alfaro.
Bakarlariak: Susanne Elmark sopranoa, Peter Schöne baritonoa, Carlos Mena kontratenorea.
Egitaraua: Sarasa, Hosokawa eta Orff-en lanak.
Lekua: Gasteizko Principal Antzokia.
Data: urriaren 3a.

Asmatu dute Euskadiko Orkestrakoek denboraldi honetako lehenengo saioarekin. Lortu dutena nahiko zaila da. Arrakasta seguruko obra bat eskaini eta honekin batera musika garaikidea sartzeari, berezitasun batekin: esango nuke ia-ia interesgarriagoak suertatu zirela obra berriak egitarauaren izarra baino. Sorpresa atsegina izan zen Xabier Sarasa (orkestraren tronpa bakarlaria) konpositorearen *Fanfarria* lana, erabateko estreinaldia. Metalentzako dago idatzia, eta bost minututan modu distiratsuz esploratzen ditu metalen aukerak, soinu-ehundura interesgarriak lortuz.

Eta Sarasaren lanak taxuz ireki bazuen kontzertua, bide beretik joan zen

hurrengo obra. Toshio Hosokawa musikari japoniarraren *Meditation. To the victims of Tsunami* benetako oparia izan zen entzuleentzat. Oso lan inpresionista da, poema sinfoniko modukoa, non tsunamiaren drama, hondamena eta bihozmina arnastu egiten diren. Orkestraren tratamendua fin eta sentsiblea da, eta joko tinbriko zoragarriak eskaintzen ditu konpositoreak. Horrez gain, nabaria zen Jun Märkl-ek konpositorearen lengoia sakon ezagutzen duela, interpretazioa biribiltzeko.

Halere, dudarik gabe, Principal Antzokia aldi honetan bete-beteta egoteko arrazoi pare bat zeuden: alde batetik, bigarren zatiko obra, Carl Orffen *Carmina Burana*, oso erakargarria, eta bestetik, obra honetan parte hartu zuen Donostiako Orfeoia. Konplikatu izan zen Principaleko antzetzotoki txikian orkestra eta abesbatza kokatzeari, baina besaulki-patitok lerro batzuk kendu zituzten eta Orfeoien erdia izan genuen saioan. Horrela salbatu zen zailtasuna. Emaizta ona izan zen, zailtazarik gabe, eta neurri batean bakarlarien meritua izan zen. Oso lan ona egin zuen Peter Schöne baritonoak, adierazkor eta seguru abestuz. Carlos Mena kontratenore gasteiztarrek interpretazio zoragarria egin zuen *Olim lacus colueram* soloan, berak duen tinbre espeziala azalduz. Eta Susanne Elmark soprano daniarrak bordatu egin zituen bere pasarteak, bere ahots eta presentzia ederrekin. Märklen zuzendaritza oso egokia izan zen uneoro. Bikain. ■

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.



Ahots gozoaren indarra

IZAROREN KONTZERTUA

Izarok eta bere bandako kideek irailaren 23an emandako kontzertua, Bilboko Kafe Antzokian. Om diskoa aurkezteko birako lehenengoa.



Dabi Piedra



@GALDERPEREZ

Aspaldi ez zela hain urduri egon aitortu zien Izaro Andresek entzuleei, Kafe Antzokian emandako kontzertuan. Ez zen gutxiagorako, izan ere, Mallabiko abeslari gazteak lehenengo diskoa, *Om*, argitaratu berri du eta Bilboko ostiral gau hartan aurkeztu zuen zaleen aurrean. Hala ere, erronkari bikain heldu zion eta kontzertu ederra eskaini zuen, duen ahots indartsu eta era berean gozoaren erregistro guztiak erabilita.

Eskarmentu handiko hiru musikari izan zituen Izarok alboan: Iker Lauroba gitarran eta teklatueta, Ane Bastida baxuan eta Oriol Flores baterian. *Om* plazaratu arte, mallabiarra bakarlari ibili izan da beti eta bere burua kantautoreen estilotik hurbil kokatzen du, horretarako gaitasuna badu eta. Baina hiru musikarien ekarpenak modu dotorean jantzi zuen emanaldia.

Ilunetan, musikaren laguntzarik gabe eta lasai ekin zion Izarok emanaldiari, *Argia* kantarekin. Pixkanaka, ahotsaren potentzia igotzen hasi zen eta lehenengo

abestia amaitu orduko garbi geratu zen zertarako gauza den. Ahotsaren kolore guztiak landu zituen, pasio biziko kantaerarekin. *KoiLarak* ere, barru-barrutik irtendako indarrez biribildu zuen. Izaroren ahotsa aldi berean izan daiteke gozoa eta indartsua, iradokitzailea eta irmoa. Bakarlari handien pare ibili eta gero, ingelesez abestu zuen beste abesti bat, pop-rock estilora gehiago lerratuta eta entzuleek gustura txalotu zuten.


Hiru hizkuntzatan abesten du Izarok eta, hala, espainolezko *La vi*-ren txanda izan zen gero. Berririo doinu motelagoak. Espainiako kantautoreen oihartzuna nabaria izan zen kontzertu osoan, erritmoetan zein hitzetan. Ondoren, gaueko nobedadeetako bat izan zen *Zangalatraba*, ordura arte ez baitzuen inoiz zuzenean jo. Izaroren izena musikaren munduan ezagun egin zuen *Paradise* ere ez zen falta izan erreperorioan. Bidaia batera gonbidatu zituen Izarok entzuleak. Istorio bakarraren parte baliar legez harilkatu zituen abesti guztiak,

kanten artean taldekideek errezitatu zituzten pasarte laburrei esker.

Kontzertu atsegina zen, entzuleak pozik baina hotz samar, eta diskoa argitaratzeko crowdfunding-ean lagundu diotenei bihotz formadun gozokiak ere banatu zizkien Izarok. Eta bat-batean, ia ezustean, gauak goia jo zuen, *Tu escala de grises* abestiaren interpretazio zirraragarriarekin. Kanariar Uharteetatik heldutako kantautorea bailitzan, demagun Rosana indarberritu bat, erritmo tropikalen menpe jarri zuen Kafe Antzokia. Ahots jostalari baina sendoz, eztanda egitear den sumendiaren pare agertu zen Izaro. Kanta amaitzeko, lau taldekideek jo zuten perkusioa, entzuleak zoroen pare txaloka eta oihuka jarzteraino.

Beharbada egia esan zuen Izarok eta urduri egon zen Bilbon, baina ahotsak, behinik behin, ez zion dardararik egin. Mallabiarrek ahots pribilegiatua duela ezin da ukatu, erakustaldia eman baitzuen Kafe Antzokian. ■

Pierre Poitras. Hesteak liluratuta



Medikuntzan geroz eta leku handiagoa hartzen ari dira hesteko bakterioak. Oraindik anitz deskubritzeko izan arren, ezagutze bat dute adituek: heste-flora dibertsifikatua eta orekatua dutela pertsona osasuntsuek eta desorekatua eriek. Horrez gain, badakite ere heste eta burmuinaren artean etengabeko loturak badirela. Heste-flora horri so dagoen Pierre Poitras mediku quebecarraren iritziz ate izugarri interesgarria dute hor irekirik.

“Bigarren burmuin bat dugu hestean, gainekoarekin hartu-emanen dena”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Jenofa Berhokoirigoin

Bakterio onei so

“Gastroenterologoa naizen aldetik hesteari begira nago. Heste-mikrobiota deitzen diogu hestean dauden mikroorganismoen multzoari eta egia erran, geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira. Milaka bakterio dira bertan. Bakterio hitza entzun eta lan-jerraz, eritasunaz pentsatu ohi dugu. Baina bakterio onak ere badira. Lilugarria da hestean gertatzen dena, deskubritzen ari garen mundu horrek harritzen nau”.

Osagarri ona bermatzeko ezinbestekoak ditugu hesteko bakterioak.

Bakterioek on egin dezaketela pentsatzea gauza berria da. Azken urteetan gertatu iraultza teknologikoak eta pentsamenduaren bilakaerak ondorioztatu du segurtamen hori. Puntako laborategi batzuk bakterio horiek deskubritzen hasi dira. Orain badakigu: heste-flora zenbat eta dibertsifikatuagoa ukan, orduan eta babestuagoa izanen gara eritasunetatik. Aniztasun hori elikatze moduari lotua da. Eritasun batzuk mikrobiotaren [mikoorganismo multzoaren] izaerari lotzen hasten gara.

Hala nola?

Heste-flora manipulatzu egin esperientzia batzuk harrigarriak dira. Adibidez, genetikoki obesoak diren sagu batzuen mikrobiota, obesoak ez diren batzuenari alderatuz, ezberdina dutela ohartzen gara. Hori baino gehiago, obesoak direnen mikrobiota besteei ezarri eta obeso bilakatzen dira! Berdina gertatzen da deprimituak diren eta ez diren saguen artean. Depresioan diren pertsona batzuekin egin dute esperientzia

eta emaitza baikorrak atera dira. Noski, esperientzia gehiago behar dira, emaitzak egiaztatzeko. Beraz, hestekoa mol-datzeak aldaketak ondorioztatzen ditu hestetik at ere. Bigarren burmuinaren nozioa horri ere lotua da.

Azaldu dezakezu ideia hori?

Mikrobiotarekin ohartzen gara hesteak beste funtzio batzuk betetzen dituela. Baina, heste-flora ikertu aitzin jada erabiltzen genuen nozio hori. New Yorkeko Michael Gershon irakasleari zor diogu; hestean sare neurologiko inportantea dugula ohartarazteko erabili ohi du ideia. Gorputzetik kendu eta ontzi batean emanda ere, funtzionatzen segituko du hesteak. Liluratzen gaitu jakiteak serotoninaren %5 baizik ez dugula burmuinean, eta ia beste guztia hestean. Neuro-igorgailu horretaz osatuak dira depresioaren aurkako erremedioak. Beraz, bai, bigarren burmuin bat dugu hestean, gainekoarekin hartu-emanen dena.

Nola egiten da bien arteko lotura?

Nerbio batzuk doaz goitik behera. Nerbio bagoa dugu ezagunena; duela 30-40



urte nerbio hori mozten zuten ultzera sendatzeko. Moztu ondoren urdailak %50 azido gutxiago jariatzaren zuzenbide, sendatzen zen eria. Bien arteko lotura argia da estres uneetan, digestio aldatuak sendi ditugu, izan behetikoa ala urdailean korapiloa. Azken hoge urteetan ikasi duguna da behetik gora ere badoazela nerbio batzuk.

Elikadurak sekulako garrantzia du.

Noski, bakterio horiek ongi elikatutak izan behar dute. Adibidez, zuntzak beharrezkoak dira. Baina oraindik ikertzen gabiltza. Ez dizut errango elikadura aldatuz depresioa sendatuko dizudala. Alta, ez gara hain urrun... Probiotikekin adibidez, bakterio batzuk gehituz eritasun batzuk sendatzen ditugu. Beste etsenplu bat gorotz transplantarena da.

Pertsona baten uzkinak, hots, kaka, beste pertsona batengandik pasaraztea.

Idea da pertsona osasuntsu baten heste-flora eri den bati emanaz beste horren heste-flora aldatu eta hobetuko dela. *Clostridium difficile* bakterioarekin

ongi funtzionatzen du, sendatze tasa %90ekoa da! Kolonoskopia bat eginez heste lodian zehar hedatzen dugu edo hodi batekin hestera bideratzen.

Beste eritasun bat pasarazteko arriskua hor da.

Hori da arazoa. Gehienetan familia-ko baten uzkina erabili ohi dugu, jaukimendu arriskua apaltzeko. Noski, ez dugu eri den baten heste-flora erabiliko. Baina ez da simple: zein da heste-flora sana? 14.000 milioi bakterio ditugu hestean. Ezin daiteke jakin guztiak sanoak diren ala ez. Baina azkenean, probiotikak hartzea bezalakoa da, salbu hor milaka milioi bakterio ditugula hartzen. Mikrobiologistaren esku da lan gehiena, analisi guztiak egin behar dituelako.

Zein eritasun sendatzen duzue horrela?

Hasiera-hasieran gara, esplorazio heinean gara oraindik. Esperientziak egin ditugu ultzeradun kolitisa zuten eriekin eta ohartu gara *super-emai* batzuk badirela, horien heste-flora erabiliz sendatze emaitzak %90ekoak direla. Normala da, jakinda bakoitzak dugu-

"Gorotz transplanteen ideia da pertsona osasuntsu baten heste-flora eri den beste bati emanaz beste horren heste-flora aldatu eta hobetuko dela. Bakterio batzuen kasuan ongi funtzionatzen du, sendatze tasa %90ekoa da!"

la heste-mikrobiota propioa. Bizitokia, elikadura, jatorri genetiko... Elementu anitzen arabera da mikrobiota.

Etorkizuneko medikuntza dea?

Izan daiteke baina desafioa alimalea da. Zientzialari batendako sekulako berrietasuna da. Gaur egun ezin duzu edonon analizatu zure mikrobiota, baina uste dut hamar urteren buruan posible izanen dela. Kanadan ikerketa bat abiatuko dute: 2.000 pertsona osasuntsu, crohn gaitza duten beste 2.000, ultzeradun kolitisa duten beste 2.000 eta heste suminkorraren sindromea duten beste 2.000 segituko dituzte hiruzpalau urtez, haien heste-flora analizatuz. 40 milioi dolarreko laguntza bideratuko diote ikerketari. Sekulakoa da! Beraz, bai, uste dut heste-florari so jarriko garela geroz eta gehiago. Ate berriak irekitzen ari dira. ■



"Maitasunari Pasioa"
diskoaren aurkezpena

Jo ta ke, erretreta hartu arte!

Maitasunari Pasioa du izena Eñaut Eloxarriaren Su Ta Gar talde jebixaren disko berriak, gu bezala haiek ere zahartzen ari direla erakutsiko duena. Basati jaio ziren hortzak estuturiiiiiiiiiiiiiiiik, eta orain kanta "samurragoak, goxoagoak, lasaiaagoak, intimoagoak" jaso dituzte


lan berrian. Ba hori, gaur gaurkoz, *grupiak* saltoka jartzeko gai den tximaluze bakarra Madrilgo telebistetan agertzen den politikari orojakilea dela. Asteburuan banatuko dute diskoa Gara egunkariarekin, ETArekin agiriak bezala, labetik atera berri.

SAREAN ARRANTZATUA

Zerbitzuak bai,
baina patxadaz



Eta segi aurrera!



Arnaldo Otegi Maddalen Iriartez mozzorrotuko da lehendakari inbestidurara aurkezteko

EH Bilduk irudimena jarri du lanean eta aurkitu du, azkenik, Arnaldo Otegi lehendakari izateko bidea: elgoibartarra Maddalen Iriartez mozzorrotuta aurkeztea inbestidurara. "Alegia, Otegi Iriartez in-beztituko dugu, kar kar" adierazi dio Beranduegiri Pernando Barreena koalizioko Hitz Jokoen Batzordeko koordinatzaile nagusiak.

"Gogotik lan egiten ari gara tranpatxoa nabaritu ez dadin", esplikatu dio Beranduegiri EH Bilduko makillaje lantaldeko kide batek; "ileordea lortzea

erraza izan da, baina beste guztia...". Antza denez, Otegi Legebiltzarrean hitz egiten duen bitartean disimuluz argitxo bat igorriko diote begietara, une oro erdi itxita eduki ditzan.

Gure ikerkuntza saileko bekadun nekaezinak jakin duenez, Maddalen Iriarteri egun horretan etxetik ez irteteko gomendatu diote, ezustean Carlos Urquijok kalean ikusi eta amarrua salatu ez dezan. Dena ondo atera dadin, EH Bilduk *Aupa Etxebeste!* filmeko egileak kontratatatu ditu aholkularitza lanetarako.



Maddalen Iriarte
artxiboko irudi batean.


EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA



natura **SAREA** **2000**

Naturagune
babestuak sare
koordinaturik
handiena. Pertsonak
eta natura bat eginda.

10 M€

Euskadik Europako
batez bestekoa baino %
30 gehiago inbertitzen
du urtero.

60

Naturagune Babestu

%20,5

Euskadiko lurraldearen
% 20,5 Natura Sarearen
baruan dago (Europar
Batasunaren batez
bestekoa %18 da)



EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL